



Larrun:

BIKTIMAK ETA ELKARBIZITZA

**Berriro
gerta ez dadin**

Bazterketa soziala

Hego Euskal
Herrian biztanleen
%10 pobreziaren
atarian daude

Carlos Tena musika kritikaria

«Musika
multinazionalak
armagintzan
tximetaraino
sartuta daude»

Diskoen finantzazioa

Entzuleak
produktore
bihurtu dira

Txangoa **Durangaldean** Infernuko Zubian barna

Epaiketa **politikoak**

Bake
negoziazioaren
joko taulan pieza
bat gehiago



Komunikazio
biziaren
harribitxia

Oparitu  **argia** harpidetza
independentzia astero ikusten da

Urte osoko harpidetza Hego Euskal Herrian 138 € | Ipar Euskal Herrian 168 € | 943 37 15 45 | harpide@argia.com



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera ➤



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko urtarrilaren 30a, 2.262. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Kepa Junkera:** «Noiz ulertuko dute niretzat Amuriza Saramago bezain garrantzitsua dela?». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Gizarte bazterketa.** 200.000 lagunetik gora pobrezia arriskuan. DANIEL UDALAITZ / 5

Pertsonaia

- **Carlos Tena:** «PSOE da Espainiak inoiz izan duen alderdi pozoitsu eta minena». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- **La Arena Salba Dezagun.** Bilboko Portuko lanek hareara lapurtu diote hondartzari. ALVARO H. PÉREZ DE SAN ROMÁN / 16

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** 2011ko Mundiala. BEÑAT SARASOLA / 18
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Gure Alhambrak.** PILI YOLDI / 20
- **Txandan** Agiriak ageri. JOXERRA GARZIA / 20
- **PISAre** neurriak. ARANTXA URBE / 22
- **Hiruko txikian** España cañi. JOXEMARI OSTOLAZA / 22
- **Zirtak** San Severinoren agiria. JOSE INAZIO BASTERRETXEA / 23
- **Bertso berriak** Eta kito! XABIER PAYA / 24

Erdiko kaiera

- **Finantzazioa diskogintzan.** Etorkizuna entzuleen esku. LANDER MUÑAGORRI / 25
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 28
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30
- **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 31
- **Ihesi Durangaldea (Bizkaia).** Ez begiratu behera. GORKA AZKARATE / 32
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 38
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 39
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

Termometroa

- **Epaiketa politikoak.** Bake prozesuaren arrastoa 18/98tik Udalbiltzara. URKO APAOLAZA / 41
- **Hizkuntz paisaia Donostian.** Intxaurrendoko kaleak euskaldunenak. SAIOA LABAKA / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Amiantoak balio du jendea hiltzeko eta filantropiarako. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Euskara/familia bikotearen dibortzioa.** IÑAKI MTZ. DE LUNA / 50

“Noiz ulertuko dute niretzat Amuriza Saramago bezain garrantzitsua dela?”

Kepa Junkera | Errekaldekoa

Infernuko hauspoarekin dabilenak deabruaren abokaturik behar al du?

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Hemen “artista larrutu” bat...

Nintzen artista sateliteari kantu herrikoiak moldatzeko karnetik ez zioten eman nahi. Nola moldatuko zituen euskarazko kantuak erdaldun batek? Ados, ez naiz euskaldun prototipoan sartzen, ez nabil benetakotasun zigilu bila... Baina zergatik ez?

“Artista subentzionatua” ere esan nezakeelako.

Ez dut inoiz pentsatu goapoena nintzelako, besteak kozkorren apurretara kondenatu, eta ogi zuria jango nuenik. Subentzioa eskatu eta eman zidaten, ez dut ezer lapurtu.

Ai, ai, ai, munduarekin homologatu nahiak galduko gaitu!

Ez nabil homologazio bila. Lehen diskoan Miguel Bosek kantatzen zuelako larrituta zeudenek, Bruce Springsteenek zergatik ez duen hirugarrenean kantatzen galdetzen didate. Noiz ulertuko dute niretzat Amuriza Saramago bezain garrantzitsua dela?

Esadazu zuk ere bide-zidorra autobidea baino ederragoa dela...

Ahal bezain gutxi zapaldutako espazioen bila nabil. Horrek ez du esan nahi Gran Viatik paseatzea gustatzen ez zaidanik, baina auzotarra izanda, jendeak ezagutzen ez dituen eta ezagutzea nahiko nukeen bideetara gonbidatzea dagokit.

Hasi gara aingeruen sexua esplikatzeko!

Zergatik derrigortuko dut nire burua kanta

bat bi aldiz berdin jotzera ez bazait ateratzen? Beti hala egin delako? Niretzat trikitixa hil ala bizikoa bada zergatik ez diot nire arnasa emango?

“Eman, eman... Hori dek eta!”.

Justu trikitixarekin sortzen hasi nintzenean esaten zidaten nirea ez zela trikitixa. Uler-tzen dut batzuentzat bitxo arraroa izatea, baina zorionez, gaur egun, Bilboko Isozaki dorreetan bizita ere izan zaitezke trikitilaria.

Bilboko Isozaki dorreetan bizi den trikitilaria? Hori sailkapen guztietatik kanpo dago!

Zergatik uste duzu jarri niola nire zuzeneko disko bati K izena eta ez T? Nire lanak Keparen K-gatik topatzea nahi dudalako, ez trikitiaren T-agatik.

Ez dakit hori egozentriko ala marketineko aditu baten apustua den.

Ezer ezberdina ez duenak masan diluitzeko edo espezializazio batean galtzeko arriskua du. Zergatik uste duzu sasi guztien gainetik bidea ireki dutenak ditudala gustuko?

Ez esan Compay Segundoren markak haustera zoazenik!

Zergatik joaten zaigu kontrako eztatritik adin fisikoak buru-adinari laguntzen ez dion fasea? Ez dakit lotsa nola garatuko zaidan, ez dakit gorputzak noiz arte erantzungo didan... Dakidana da neure kabuz jaitsiko naizela oholtzatik. ■

Gizarte bazterketa

200.000 lagunetik gora pobrezia arriskuan

Suteak lau biktima eragin zituen joan den azaroan Santurtziko eraikin abandonatu batean; bi gazte magrebtar hil egin ziren eta beste bi, larriki zauritu. Santurtziko tragediak mahai gainean ipini du gizarte bazterketaren eta pobreziaren arazoa, bereziki arazook larriagotu egiten dituelako egungo finantza krisiak eta gizarte, ekonomia nahiz lan egoerak.

DANIEL UDALAITZA



HALOOCYN



DANI BLANCO

SANTURTZITIK BAIONARA, Barakaldotik eta Donostiatik igarota, gizarte bazterketak Euskal Herrian ere hil egin du eta hil egiten du. Ez dira soilik Madrilgo, Parisko, Londresko eta New Yorkeko aldirietan gertatzen diren bazterkeria egoerak. Hemen, gure artean, Euskal Herriko herri eta hirietan ere bazterketa egoerak gertatzen dira. Aspalditik datozen egoerak dira, baina egoera horiek areagotu egin ditu azken bi urteetan jasan dugun finantza, ekonomia, lan eta gizarte krisiak, finantza eragileek, espekulatzailerak, kapitalismo basatiaren aurpegi anitzak besterik ez diren “merkatuek” piztu zuten krisialdiak.

Gizarte bazterketak hildako eta zauritu asko eragin ditu Euskal Herrian, eta ehunka dira kalean eta kutzazain automatikoetan bizi diren eta bizia arriskuan duten pertsonak. Aipatu moduan, Santurtziko jatetxe abandonatu batean azaroaren 23an izandako suteak bi hildako eta beste bi zauritu larri eragin zituen. Biktimak etorkin magrebtar gazteak ziren. Gau hartan tenperaturak oso baxuak ziren eta lauak lotan zeuden goizeko 6etan sutea piztu zenean. Duela hilabete batzuk, kutzazain batean eta kalean lo egiten zuten beste bi pertsona ere hil ziren. Urriaren 31n beste pertsona bat hil zen Gasteizko Adulza auzoko aparkalekuan lotan zegoela. Abuz-

Kalean hiltzea

2010eko maiatzean, etxerik gabeko pertsona bat Barakaldoko kutzazain batean hil zen. Handik bi hilabetera, Barakaldon bertan, etxerik gabeko beste pertsona bat hil zen kale gorrian. Isaias kalean hil zen, lagun batekin batera babesten zen tokian lotan zegoela, hondatutako lastaira batzuen gainean, egurats zabalean.

tuan bi haur zauritu zituen oso egoera txarrean zegoen Kastrexanako (Bilbo) etxe batean piztutako suteak. 2009an emakume bat hil zen egoera oso kaxkarrean zegoen Baionako alde zaharreko etxe bat erre zenean. 2006an, etxerik gabekoak babesteko elkarte batek kudeatzen zuen Bilboko San Frantziskoko pentsio zaharrean gertatutako sutean, lau pertsona hil ziren.

Joan den azaro hasieran Groseko (Donostia) eraikin abandonatu bat suak hartu zuen. Bizilagunek adierazi zuten, etxerik gabeko pertsonak gaua han pasa ohi zuten eta berrizko suak piztu ohi zituzten. Zorionez, egun hartan ez zuten eraikina erabili eta, hortaz, ez zen biktimarik izan. Berdin gertatu zen hil honen 4an Algortan eta 17an Erandion erre ziren etxeekin: eskaleek erabiltzen zituzten, baina suteak ez zituen harrapatu.

Hona hemen gure arteko gizarte bazterketa eta pobrezia egoera adierazten duen beste datu bat: 2010eko lehen hiruhilekoan, Barakaldoko eta Sestaoko 59 familia beren etxeetatik lege zaleratu zituzten, beren konpromiso ekonomikoei aurre egin ezinda.

Euskal Herrian bizi diren etxerik gabeko, aterperik gabeko pertsonen egoera zein den jakiteko gaur egungo datu ofizialik ez dago. Eskuragarri dauden azken datu ofizialak

Etixerik gabeko pertsonen soslai

2005ean EUSTATEk burutu zuen ikerketaren arabera, EAEn etxerik ez duten pertsonen %75 gizonezkoak dira. Gogoan izan, azterketa horren arabera, EAEn 1.833 pertsona zeudela etxerik gabe. Talde horren batez besteko adina 38 urtekoa da. Hala ere, alde handia dago etxerik gabekoen adinaren eta sexuaren artean: gizonezkoen %43,5ek 30 eta 44 urte bitartean dituzte, eta emakumeen %45,7k 18 eta 29 urte bitartean. Emakumezkoen %68k eta gizonezkoen %39k seme-alabak dituzte. Etxerik gabekoen %57 bigarren mailako hezkuntzara iritsi dira eta %14k goi mailako ikasketak dituzte.

Etxerik ez duten pertsonen %40k adierazi dute ez dutela sekula drogarik kontsumitu. %25ek buruko gaitzen bat dute, baina portzentaje horrek urtez urte gora egiten du. Etxerik gabekoen bizi itxaropena gainerako biztanleena baino 25 urte gutxiagokoa da. EAEn pertsona horien %22,4k nolabaiteko eraso jasan dute, eta %2k, hau da, etxerik gabeko 38 pertsonak, eraso sexuala.

Dena den, bada Bizkaia buruzko ikerketa berriagoa, 2009an argitaratua. Hauek dira "Bizkaiko etxerik gabeko pertsonen profilen eta beharren ikerketa" horren emaitzak. Azkenaldian, pertsona horien kopuruak gora egin du, batez ere gizartean nahiz talde horretan etorkinak ugartu egin direlako. Profil tradizionala indarra galtzen ari da errealitate sozial berriak direla-eta (immigratzioa, familia gurasobakarrak). Testuinguru horretan bi kolektibo nabarmentzen dira: arazo pertsonalak dituzten pertsonak (buruko osasuna, droga menpekotasuna, alkoholismoa eta abar) eta bizileku bazterketa arazoak dituztenak (nagusiki, magrebtar gazteak).

Halaber, txosten horrek etxerik gabeko pertsonen %91 gizonezkoak direla, batez beste 36 urte dituztela eta %47 Espainiako Estatukoak direla jasotzen du. Atzeritarren artean %59k jatorri magrebtarra dute. %48,5ek gaixotasun larriak dituzte, bereziki hepatitis eta GIB. %38 espetxeratuta egon dira.

2005ekoak dira eta EAEko hiru lurraldeei dagozkie. Eusko Jaurlaritzako EUSTATEk egindako azterketa batean bildu zituzten datuok. Ikerketaren arabera, sareko zentroetan etxerik gabeko 1.883 lagun hartu zituzten.

Nolanahi ere, ikerketa Euskal Herri osora zabaldu eta eguneratuz gero, kopuru hori ziu-rrenik 5.000 pertsonara hurbilduko litzateke. 2005etik, azken azterketa ofiziala egin zutenetik, bereziki etorkinen kopuruak gora egin

argia
2011ko egutegia

Salgai dagoeneko!

EGURREZKO TAULA 50€

EGUTEGIA 8,50€

BURNIZKO EUSKARRIA 5€

- Hausnarketa labur ospetsuak
- Jai egunak
- Egun seinatuak
- Santuak
- Euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak

ESKAERAK: ☎ 943 37 15 45 | denda@argia.com



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Santurtziko jatetxe abandonatu batean azaroaren 23an izandako suteak bi hildako eta beste bi zauritu larri eragin zituen.

du eta egoera sozioekonomikoa nabarmen okertu da. Horrenbestez, logikoa da azken urteotan etxerik gabeko pertsonen gertatu zaizkien tragediak ugaltu izana.

200.000 pertsonatik gora pobrezia atalasean

Gaur egun Euskal Herriko 200.000 biztanle baino gehiago pobrezia atalasean bizi dira, 2006ko azken datu ofizialek adierazten dutenez. Kontuan izan behar da pobrezia atalaseari buruzko irizpideak aldatu egiten direla herrialde batetik bestera. Nazioartean egunean dolar batekin bizitzea jotzen da pobrezia atalasetzat. Espainiako Estatuan, aldiz, pobrezia atalasea kontsumo unitate edo familia bakoitzeko urteko 6.278,7 eurotan dago. Pobrezia eta gizarte baz-

Hego Euskal Herrian 232.851 pertsona pobrezia atalasean bizi dira, biztanleen %9,8 alegia. Europa osoan 78 milioi pertsona daude egoera horretan

terkeriaren aurkako Euskal Herriko elkar- teek atalasea diru kopuru handiagoetan kokatzen dute.

Ondoren eskaini ditugun datuak Pobrezia- ren eta Gizarte Bazterketaren Aurkako Euro- pako Sareak nahiz Hego Euskal Herriko sareek emandakoak dira, baita Kataluniako Caixak 2006an burututako txosten baten barruan egindako bizi baldintzei buruzko inkestan jasotakoak ere.

Ikerketa horien arabera, Hego Euskal Herrian 232.851 pertsona pobrezia atalasean bizi dira, biztanleen %9,8 alegia. Ipar Euskal Herriari dagokion daturik ez dugu. Iturri ber- beren arabera, Espainiako Estatuan ia bed- ratzi milioi pertsona (8.897.084) bizi dira pobrezia atalasean, hau da, biztanleen %19,6. Eta Europa osoan 78 milioi pertsona daude egoera horretan.

UNICEFek egindako beste inkesta baten arabera, Nafarroan 18.000 haur pobrezia arriskuan daude (haurrek ez du esan nahi goseak daudenik, elikadura urritasuna dutela baizik). EAEn, arrisku horrek haurren %9,3ari eragiten dio. Espainiako Estatuan batez bestekoa %24koa da.

Hiltzen, pobretzen eta baztertzen duen sistema

Arestian aipaturiko tragediak ez dira bakanak. Etxerik gabekoen eta pobrezia atalasean bizi direnen datuak hiltzen, pobretzen eta baz- tertzen duen sistema kapitalistaren adierazleak dira. Hiltzen duen gizarte bazterketa adieraz- ten dute. Eta bazterketa eragiten duen kapita- lismoak ("merkatu" ezagunak) sistema basa- tia delako hiltzen du.

Irlandan, Grezian nahiz Mendebalde osoan agerian geratu den moduan, zerga ordaintzaileen kontura galerak gizarteari ego- tzi eta etekinak pribatizatzen dituen sistema da gurea. Miseria, desberdintasunak eta gizar- te bazterketa eragiten dituen sistema. Emi- gratzera, txabolatan edo kalean bizitzera eta

2010eko lehen hiruhilekoan, Barakaldoko eta Sestaoko 59 familia etxetik lege zaleratu zituzten, beren konpromiso ekonomikoei aurre egin ezinda

Bazterketaren aurkako plataformak

Euskal Herrian, bereziki Hego Euskal Herrian, gizarte bazterketaren eta pobrezia-aren aurkako herri plataforma ugari dago. Harresiak Apurtuz (www.harresiak.org) etorkinei laguntzeko eta pobrezia-aren nahiz gizarte bazterketaren aurkako EAEko Gobernu Kanpoko Erakunde-ko koordinatzailea da. Dozenaka erakunde barne hartzen ditu. Halaber, pobrezia-aren eta gizarte bazterketaren aurkako Europa-ko sareak EAEn eta Nafarroan ere funtzionatzen du, eta estatu mailako hainbat erakundek ere egoitzak dituzte Hego Euskal Herrian, hala nola Caritasek edo UNICEFek.

Barakaldoko Berri-Otxoak plataforma nabarmendu nahi dugu, presentzia publiko alternatibo garrantzitsua duelako eta ekintza ikusgarri eta deigarriak burutzen dituelako. 1992ko abuztuaren 12an sortu zen. Egun



hartan udaltzainek 1980ko hamarkadatik okupatuta zegoen Berriotxo kaleko egoitza bat hutsarazi zuten. Emakume talde baten, bi elkarte ekologisten, euskararen aldeko elkarte baten, Zirika irrati librearen eta Kakitzat talde antimilitaristaren egoitza zen. Kalera-tearen ondorioz eta egoitza berri bat topatzearren, Berriotxo Talde Koordinakundea sortu zen eta

1994ko martxoaren 19an Barakaldoko Apuko kalean egoitza bat okupatzea lortu zuen. Pixkanaka koordinakundea etxebizitza arazoetan, pobrezia eta gizarte bazterketan espezializatutako talde bihurtu zen. 1997ko abuztuaren 18an Ertzaintzak bertan behera utzi zuen Berrietxea, Apuko kalean okupatutako gizarte gunea. Baina eraso horrek ez zuen taldearen amaiera ekarri; maileguz utzitako espazioa baliatuta, gizarte bazterketaren aurkako plataforma bihurtu zen.

erortzeaz dauden eraikinetan sartzera behar-tzen duen sistema. Gure zergen kontura ban-
ketxeak eta finantza entitateak “erreskatatze-
ko” mekanismoak dituen sistema. Hori
guztia egiteko eskubideak eta gizarte zerbi-
tzuak (erretiro sariak, langabezia sariak, oina-
rriko errenta, etxebizitzarako laguntzak)
murrizten dituen sistema. Krisialdia gorabe-
hera, errentagarritasun ekonomiko eta sozial
zalantzarria duten azpiegitura zabalak erai-
kitzeko, hala nola AHT, Supersur, San
Mames, Guggenheim Berria eta Pasaia-
ko kanpo portua, diru kopuru handiak erabil-
tzen ditu, baina ez du dirurik jartzen aterpe-
txeak eraikitzeko edo etxerik gabekoei eta

langabetuei gizarte laguntzak handitzeko.
Pertsonak gizarte bazterketatik ateratzeko gai
ez den sistema da.

Sistema honek, EAEn iruzurra saihesteko
asmoz, banakako inspektzioa iragarri arren,
soilik txiroenekin burutzen du inspektzio
hori. Hala, pobrezia atalasean daudelako
gizarte sariak jasotzen dituzten 80.000 per-
tsonen txostenak banan-banan aztertze-
ko prest dago. Eta ona da iruzurra saihestea.
Hala ere, bankarien, notarioen, arkitektoen,
erregistratzaileen, abokatuen, medikuen edo
kirolari profesionalen sektorean iruzur fiskala
ohikoagoa da eta haientzat ez dago halako
inspektzio neurri zorrotzik. ■

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Carlos Tena

«PSOE da Espainiak inoiz izan duen alderdi pozoitsu eta minena»

“...Zai, zoi, bele, arma, tiro, pum...”.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Medikuntza ikasten hasi eta kazetari lanetan bukatu...

Mediku semea nintzen, eta familia ugaria ginenez, unibertsitatean deskontu handi samarra geneukan. Anaia zaharrenak nahiago izan zuen ingeniartza agronautikoa egin, eta hori ikusita, nik medikuntzari ekin nion. Dena den, ez dakit bata zuriarekin lanean bukatuko nuen, ez dut irudikatzen nola sentituko nintzatekeen gaixoak artatzen. 20 urte nituela, ordea, aita hil zitzaigun, etxean panorama patetikoa utziz. Pentsa, hamahiru anai-arreba ginen, eta gazteenak hilabete baizik ez zeukan. Lan bila hasi nintzen orduan. Irrati batera jo nuen, eta froga batzuk egin ostean, Luis Del Olmo izeneko batek nahiko azkar fitxatu ninduen. Lanak hala aginduta, 1975ean, berak zioen gisan “maritxuen talde bat” ikusteko bi sarrera eman zizkidan, eta hantxe lur hartu nuen Beatles-en prentsurrekoan. Egun hartan jabetu nintzen Espainiako kazetaritzaren mediokritateaz. Lotsagarria zen, barregarria. “Paella gustatzen zaizue?”, “zer dakizue flamenkoari buruz?”, “gingo zenioke kanta bat Osborneko zezenari?” bezalako galderak pausatzen zituzten. Hori ikusita, eta ingelesa ikasteko aukera neukanez, musika arloa jorratzea erabaki nuen, 1977an irratian plaza irabazi nuen arte.

Kazetaritzaren esferetan boterearen morroiak eta iraultzaileak nahasiko zineten.

Ez ginen komunista asko, baina komunistak bakarrik geunden, kar, kar. Kazetaritzako irakasleek informazioak objektiboa eta kontras-

tatua behar zuela esaten zigutenero “ez ditek egiten baina hala esaten ditek behintzat” pentsatzen nuen nire baitan. Tamalez, egungo kazetaritza eta diktadura garaikoa berdin-berdinak dira, desitxuratzailleak, kamutsak, eta manipulatzailleak. Zenbaitek ederki jarraitu dituzte dotrina zaharrak, eta bitxia badirudi ere, kazetaritza zorrotzago, objektiboago eta ez hain manipulatzaillea egiten saiatu garenak bukatu dugu XXI. mendeko zentsura den ostrazismoan. Hizkuntza batzuk nekizkienez, kanpora bidaltzen ninduten musikaz hitz egitera, horrek kikilduko ninduelakoan, baina nik ez nuen aukerarik galtzen mezu probokatzailleak sartzeko. 1971an, Espainiako alderdi komunistako jendea ezagutu nuen Parisen, eta ahotsa aldatuta bertako irriti batean kolaboratzen hasi nintzen. Horri esker Ramon Chao –Manu Chaoren aita–, Ignacio Ramonet eta artista mordoarekin harreman estua lortu nuen. Saiatu nintzen Ez Dok Amairukoak euren kanta eta kontuak irratian pasatzeko konbentzitzen, baina ulergarria zenez, ez zuten deus jakin nahi kazetari espainolekin. Hori bai, harrigarria badirudi ere, irriti espainoletan gaur egun baino askoz euskarazko, galegozko eta katalanezko kanta gehiago entzuten zen. Horregatik diot egungo erregimena askoz zapaltzaileagoa, manipulatzailleagoa eta bereziki, askoz faltsuagoa dela. Diktadurak bere txarrean abantaila bat du, otsoa ez dela ardi-larruz moztarotzen. Baina diktadura demokratiko hau, erregimen hipokrita, ustela eta torturatzaillea da. Horri bai egin behar zaiola kontra.



Nortasun agiria

Madrilen sortu zen 1943an. Kazetari probokatzaila, musika kritikari ospetsua eta disko zenbaiten produktorea Kuban bizi da 2002tik, eta bertako musika tradizionalaren zentroan lan egiten du.

Ez dira gutxi, ordea, frankismoaren sutan erre direnak.

Telebistan, dena mila filtrotatik pasatzen zenez zailagoa zen ezer egitea, nahiz eta Vulpes-en bideo polemikoarekin ziri ederra sartu genien. Irratian, alta, dena zen zuzeneko, eta soldatarik gabe aldi baterako kanporatzeetan bukatu ziren mila anekdota daukat. Gogoan dut, 1976an, erregimen frankista hankaz gora zihoanean, kanta aldarrikatzaile eta iraultzaile anitz jartzen nituela, eta RNE-ko zuzendariak “tira, badakit zu zer zaren, mesedez ez iezadazu arazorik sortu hau dena erori arte” erregutu zidala, eta oso eskaera koherentea iruditu zitzaidala bere partetik. Ez duzu imajinatzen zenbat barre egin genuen esan zidanean CESID-eko norbaitek ulerrarazi nahi izan ziola militar baten alabarekin ezkondu nintzela, militarren familiak zikiratzeko alderdi komunistaren plan baten baitan. 1978-1979an, beste etapa bat etorri zen, non UCD-k, askatasuna zer zen ez zekielako, egungoa baino mila aldiz irati-telebista sistema askeagoa garatu zuen. Baina PSOE agertu zen ondotik, eta ahal izan zutena eta gehiago suntsitu zuten. PSOE da Espainiak inoiz izan duen alderdirik pozitsu eta minena. Oso jende ondradua dauka militantzian, baina agintari koldar eta faltsuz beteta dago, herri honen minbizia izan zen Felipe Gonzálezetik hasi eta egun agintean dagoen Zapatero izeneko mediokritatearen sinboloraino. Alderdi horren historia trazioz, manipulazioz eta orbanetz beteta dago Francoren heriotzatik gaur arte, hainbestearaino non, NBE, oraindik orain, eta arrazoi osoz, Espainia tortura praktikatzan dutenen zerrendan daukaten, giza-eskubideak betetzeko eskatzen diegun Peru edo Kolonbia bezalako herrien ondoan.

Zenbat eragiten du frankismoa bezalako diktadura batek panorama musikalean?

Frankismoa bortitza bezain tontoa eta ezjakina zenez, ez zeukan gaitasunik estetika jakin edo letra estilo bat bideratzeko. Ekintzaren ordua iristen zenean, ordea, instituzioek dirua jarri behar izaten zuten, eta beti egon da joera gehiago kontratatzeke politikoki zuzena, ertzeko gorria baino. Baina zer gertatzen da gaur egun ere? Frankismoak baino eragin handiagoa dauka egungo ezkutuko diktadura honek, non politikoki zuzena izan eta kondenatu beharrekoak kondenatu behar dituzun lan egin nahi baduzu. Hori larrutik ordainarazi zidaten, 90eko hamarkada hasieran, nire lana RNEko pasilloetan inongo

zereginik gabe noraezean ibiltzea bihurtuz. Azkar ikusi nuen hortik alde egin beharra neukala bizirik eta sano irten nahi banuen, eta alabari pisua oparitzeko besteko dirua batu ostean hanka egingo nuela erabaki nuen. *Lluvia de Estrellas* bezalako programa txatxu batek eman zidan txanponak biltzeko aukera, eta pentsatutakoa eginda, oso lasai geratu nintzen. Horri esker jabetu nintzen erregimen borbondarrak panikoa diola demokraziari, ez duela herriak hitz egiterik nahi, eta politikoki zuzenaren diktadura beste edozein diktadura baino zapaltzaileagoa eta mugatuagoa dela edozein arlotan.

Zergatik kexatzen da musikaren industria?

Ez duzu imajinatu ere egiten zenbat diru lapurtu duten urtetan. 1984an, CD batek 4.000 pezeta balio zuen, proportzioan egungo 50 euro, eta LP bilduma genuenok CDetara pasako gurela pentsatuz txanponak kontatzen pasa zituzten urteak. Gainera, konpainia multinazionalak horretara baizik dedikatzen ez direla dioen mitoa gezur hutsa da, gehienak armagintzan edo industria farmazeutikoan tximetaraino sartuta baitaude.

Baina gaur egun, konpainiek etsi egin dute, eta badakite euren negozioa aldatu beharra daukatela. Internet dela eta ez dela, musika jaitea autorearentzat kaltegarria dela salatzen dute behin eta berriz, baina ekintza eta exekuzio mekanikoengatik dirua biltzeko tenorean editorialak %20a edo gutxiago baizik ez dio emango artistari. Are gehiago, badaude Prisa bezalako marrazoak, editorial propioa daukatenak, eta zure disko bat Ser irratian entzutea nahi baduzu ordaindu beharra daukazu. Diru hori Ser-ek bere editorialarentzat biltzen du, horrekin SGAE-ri ordaintzen dio, eta editoreak direnez, SGAEtik diru bat jasotzen dute bueltan. Horrek zer esan nahi duen? Bestela ere autoreari hutsaren hurrena iristen zaiola. Horri, SGAEen etekinen banaketa ilegala darabiltela, kontu argirik ez daukatela, auditoriak ukatzen dituztela, eta beren buruzagientzat erretirorako hilean 20.000 euroko pentsioak uzten dituztela gehitzen badiozu, zer nahi duzu esatea? Negatik segi dezatela negarrez malko-hustu arte. Ez didate penarik emango!

Bizi diren bezala jokatzeko omen dute futbolariak. Entzuten dugun musika gure bizimoduaren eta izaeraren isla da?

Oso kutsatuta gaude eta auskalo. Nire kasuan, hainbeste musika entzuten dudanez ez naiz inoren *fana*. Autoreak baino gehiago

**“Politikoki zuzenaren diktadura
beste edozein diktadura
baino zapaltzaileagoa
eta mugatuagoa da”**

obrak gustatzen zaizkit. Behin, lagunartean, Benito Lertxundiren kanta bat jarri nuen, kantari jugoslaviar berri bat zela esanez, Emir Kusturicaren laguna. Bukatutakoan soilik esan nien nor zen eta zein hizkuntzatan ari zen. Sekulakoak eta bi bota zizkidaten, horrek eragiten duen ezjakintasuna sekulakoa baita. Niri berdin zitzaidan zer entzun, ez neukan fobiarik. Nik berdin-berdin entzun nezakeen opera ala musika herrikoia, baina ezker mugimenduan popularra zen oro gutxiesten zuen joera bat sortu zen, akats larria iruditzen zitzaidana, eta horregatik beti defendatu ditut obrak artisten gainetik. Zentzu horretan, ez dut jasaten bere iritzia ez emateagatik ezer baino lehen zurea galdetzen dizun jendea. Inork ez luke lotsarik izan behar “hau gustatzen zait” esateko. Inork ez luke lotsarik izan behar Beatles-ek, oso kanta onak dauzkaten bezala, txar amorratuak ere badauzkatela esateko. Autoreak pasa egiten dira, obrak ez. Gauza bat daukat oso garbi: Schubert eta gisakoen musika gaztetatik entzun behar dela, belarria egoki baino ego-kiago formatzen dutelako, zentzumen oso bat garatzen laguntzen dutelako, eta obra bat baloratzeko lanabesak ematen dizkizutelako. Egia da jende bati ez zaiola gustatzen. Ez dira hizkuntzan murgiltzen, ez direlako jabetzen hizkuntza bakoitza musika bat dela. Niri, esaterako, euskararen musikaltasuna zoragarria iruditzen zait.

Zer musikaltasun topatu duzu Kuban?

80. urtean joan nintzen lehenbizikoz, eta ideologikoki bihotzekoa izateaz gain izugarrizko jakin-mina pizten zidanez, urtean bi edo hiru bidaia egiten hasi nintzen, 2002an bertara bizitzera joan nintzen arte. Hasieratik jabetu nintzen komunistak izan arren ez zirela errusiarrak. Hainbeste kantatzen, bekaturik gabe larrutan egiten zuen eta gainera iraultzailea zen herria ezin zen errusiarren eremuan sartu. Ez daukate tristura eta ortodoxia kristaurik zainetan. Era berean, Kuba Hego Amerikarekiko ere desberdina zela ohartu nintzen. Kuban ministro bat ustelkeriagatik erortzen denean, ez da kartzelara joaten, erortzen da eta kito. Herritarrek argi eta garbi esango diote pertsona gisa porrot egin duela, baina hori aski umiliagarria denez, handik normaltasunera itzultzen dira eta inork ez du lurrean dagoena zapaltzen. Horretaz gain, herri kubatarra oso pikaroa da, atzeritarrekin gehienbat, baina etxekotzat hartzen zaituztenean kito. Pentsa, orain kontrabaltseroa deitzen didate. Oso herri jantzia da. Ederki dakite zer daukaten eskuartean, baita euren ahulgune eta gabeziak zein diren ere. Badakite zer den argia,





AZKEN HITZA

Fidel

“Behin La Habanatik nindoan ‘*Con Fidel hasta el fin del mundo*’ zioen Espainian erositako kamiseta batekin. Polizia bat hurbildu zitzaidan, kamiseta non erosi nuen galdezka. Azalpenak eman eta ‘*Al comandante no le gustaría*’ erantzun zidan uniformedunak. Egia da. Oso gutxitan agertzen da Fidel bakarrik. Ez zaio gustatzen. Kamiseta gehienek, Che, Jose Martí edo Cienfuegos daramate. Fidelen estatuak ere apenas dauden”.

telefonoa, ura eta abar subentzionatuta edukitzea. Badakite zer suposatzen duen blokeoak. Ez duzu sekula kubatar bat ikusiko gobernuaren egoitza baten aurrean irainka edo bandera bat erretzen. Zur eta lur, askotan galdetzen didate Espainian zergatik erretzen ditugun hainbeste bandera. “Lurra garbitzeko oso ondo daude, *compañero*” egiten dute barre. Oso praktikoak dira, oso tolerantak, baina batez ere, maitasun eta begirunean heziak. Baina Kubari mikroskopiaarekin begiratzen dio munduak. Adibidez, El

Salvador-en askoz miseria handiagoa dago baina inork ez du ezer esaten. Kuba entzun orduko, alta, denak hasten dira bere akatsei begira, ebidentzia positiboak ahaztuta. Bai, Kubako haurren hilkortasun tasa Estatu Batuetakoa baino apalagoa da. Bai, Kuba da Latinoamerikako herririk beharrezkoena, berari esker hitz egin baitezakegu Boliviako liberazioaz etab., etab., etab.

Nola irudikatzen duzu Fidel Castroren heriotza- ren osteko aroa?

Oso zaila da. Jende batek Fidel botereari estu-estu lotuta zegoen lapa zela uste izan du beti, baina ezagutzen duen edonork daki ez dela hala. Gauza jakina zen ebakuntza larri horren ostean ez zela agintera itzuliko. Fisiokoki desagertzen denean beti geratuko da iraultzari lotutako pertsonaia bat, baina iraultza hori biziarazteko jende gazteagoa behar da, eta jende hori hor dago. 50 urte baino gehiagoko blokeo honetan Kubak 600.000 milioi dolar baino gehiago galdu ditu, eta gaur arte iraun badu, aldatzen eta egokitzen jakin duelako izan da. Bistan da aurrera egitekotan, Kubako sistemak aldatu beharra daukala, uneotan dagoenak ez duela balio. Zergatik uste duzu alderdi komunistak alderdiaren katarsia eragingo duen prozesua jarri behar duela martxan? Zergatik uste duzu garbiketa ideologiko sano baten atarian gaudela? Orain, gauzak dauden bezala egonda, herritar xumeari erabat zintzoa eta ondratua izatea eskatzea hipokresia ikaragarria litzateke. Kubatarra beste pasta batekoa da. Ez dute ulertzen Bartzelonan aitona bat atxilotu izana ogia osteagatik. Pentsa, lapurrek ere ongi hitz egiten dute Kubako poliziaz. Ez dute espainolek duten tortura demokratikoaren kulturarik. Horregatik diot Kubako ereduak Kuban baizik ezin duela funtzionatu, eta orain arte bezala, egoerei egokitzen asmatzen badu, Fidelekin edo gabe, aurrera egiten asmatuko duela. ■

baga-biga
MUSIKA
BULEGO
INTEGRALA

MUSIKAN BERRIENA

ESNE BELTZA
NOA
LP

UNE
AKUSTIKOAK
ETA BESTELAKO
UNEAK

TRASTORNA2
ESCAPANDO

GATIBU
ZUZENEAN
BIZITZEKO
GOGOA
DVD+CD

SUTURA
SUEÑOS
PODRIDOS

ZAIN
XXI. MENDEKO
PIRATAK

ROCKAINA
EN EL AIRE

**KORRONTZI
& OINKARI**
INFERNUKO
HAUSPOA
DVD

KHERAU
MUNDUAN
ORTOZIK

baga-biga musika ideiak
telef. 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com

MIHILUZE

BERRITUA

Froga berriekin gozatu eta barre egiteko



Telebistako programa
arrakastatsuaren
edizio berria!

- Erantzuna emanda asmatuko al zenuke galderaren erantzuna?
- Eroglifikoak deszifratzeko bezain ero al zaude?
- Sakiko mzkn dzn trbtasna rktsi

Eta beste hainbat froga dibertigarri...

- Zer da zer?
- Tribuaren berbak
- Potokumeak
- Horma

... zure hizkuntza aberasteko.



Bilboko Portuko lanek harea lapurtu diote hondartzari

2005eko martxoan Espainiako Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioak ontzat eman zuen Bilboko Portu Autonomoak La Arena hondartza aurrean estatu osoko urpeko harrobirik handiena ustiatzeko egitasmoa. Bilboko portua handitzea helburu duten dragatze lanak duela urtebete hasi ziren. Urtebete dauka ere, lanak legez kanpokoak direlakoan, dragatzea geldiarazteko zein hondartza babesteko sortutako La Arena Salba Dezagun plataformak.

Testua eta argazkia:

ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

2009KO ABENDUAN HASI eta bi hilabete beranduago bukatu zen, La Arena (Muskiz-Zierbena) hondartzatik bi kilometrora, Bilboko portuak ur gaineko 293.000 metro koadro irabazteko 10 milioi metro kubo hondar ateratzeko lanen lehenengo fasea. Bertan eragindako zuloa 20 metro ingurukoa da, hau da, bost solairuko etxe bat bezain handia. Bilboko Portu Autonomoko presidente Jose Ramon de La Fuentek dragatze lanek hondartzan ez dutela inolako eraginik izan esan arren, La Arena Salba Dezagun plataformak, Ezkerraldeko, Meatzaldeko eta Enkarterriko udal gehienek zein Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dute berdin pentsatzen. Izan ere, behin baino gehiagotan eskatu dute, azken hilabeteotan, dragatze lanak geldiarazteko. Udazkena heltzean baina, BPak berriro ekin dio dragatzeari Azti-Tecnaliari portuak eskatutako txostenaren bermeaz: horrek ziurtatzen du hondartzak ez duela kalterik jaso. Bitartean, hondartzan gero eta gehiago dira gatazkaren ikur bihurtu diren harriak eta agerian geratu dira meatzaritzak utzitako porlan zaharrezko aztarnak. Bilboko Portu Autonomoaren jarrerak hautsak harrotu ditu.

Lehen esan dugun lez, 2009ko abenduan hiritarrek, teknikariek, surflariek eta bestelako erabiltzaileek sortu zuten La Arena Salba Dezagun, dragatze lanak geldiarazteko. Dragatzearen inguruko informazioa —behatze lanak, ikerketa teknikoak, batez ere— zabaldu

Muskizeko udal ordezkariak jakitera emandako datuen arabera, maiatzetik azarora hondartzak 13.000 metro kubo harea galdu ditu. Dragak eta portuko lanek zerikusia dutelakoan daude

dute herritarrak eta erakundeak mobilizatzeko asmoz eta Kosta Legea bete dadin. “Dragatzea bera legez kanpoko da. 22/1988 Kosta Legearen 63. artikulua argi esaten du beste hondartza bat lehenera etortzeko ez bada, debekatuta daudela La Arenan egiten ari diren bezalako lanak; ezin da eraikuntzarako harea atera. Portukoek izan ezik, inork gutxi sinetsi zezakeen hain erraza zela legea zapuztea”, esan digu La Arena Salba Dezagun taldeko kide Damasok. Legearen harira etorri ziren lanak geldiarazteko eskaerak eta Jose Ramon de La Fuenteri ipinitako kereila. Kereila baztertu egin du fiskalak, ez baitu ikusi delitu zantzurik. Legea eskuan eta urpeko harrobiak beren ustetan hondartzan eragindako kalteak agerian zirela hasi zen plataforma inguruetako eskualdeetako udal-letan dragatzearen aurkako mozioak aurkezten: “Hasierako

mozioak, Muskizen eta Zierbenan, adibidez, bat-batekoak izan ziren. Aurrerago, taldearen lana sendotu ahala, udal guztietarako testu bakarra proposatu genuen. Hala ere, udalaren edo gobernatzen duen alderdiaren arabera, nork bere ñabardurak eta prozesuak izan ditu”, azaldu du Damasok. Bizkaiko Batzar Nagusiek ere lanak geldiarazteko eskatu dute. Zabala eta askotakoa da, beraz, Bizkaian Bilboko Portu Autonomoak bultzatutako dragatze lanen kontrako jarrera. 2010eko otsailean Portu Autonomoak bukatutzat eman zuen lanaren lehenengo fasea. “Portukoek esan



La Arena hondartzan gero eta gehiago dira gatazkaren ikur bihurtu diren harriak.

zuten bertan behera utzi zituztela lanak iritzi publikoak behartuta; guk, ordea, pentsatzen dugu jada behar beste harea atera zutelako eten zutela dragatzea”. Izan ere, inork ez daki zehatz-mehatz zenbat harea atera zen lehenengo fase hartan: egitasmoak 1,3 milioi metro kubo aurreikusten bazuen ere, Portuak Azti-Tecnaliari eskatutako txostenaren arabera 2,4 milioi izan dira ateratakoak. La Arena Salba Dezagunekoek gehiago izan daitekeela pentsatzen dute: “Dragen kapazitatea 18.000 metro kubokoa zen; 60 egun eta eguneko lau bidaia eginez, 4,2 milioi metro kubo ateratzen dira”, azaldu digu Damasok. Edozelan ere, AZ3 moila berria egiteko beste izan da. Hasi berria den fasean 2,4 milioi metro kubo atera beharko lukete, AZ2 moila bukatzeko.

Herbehereetako dragarik handiena

Egun, Herbehereetako dragarik handiena dabil lanean, TSHD, 31.136 metro kuboko kapazitatea duena. Zenbat bidaia egingo duen ikusteke dago. Azti-Tecnaliaren txostena ez ezik, Kataluniako Universitat Politècnica, Kantabriako Unibertsitateak eta EHUK egindakoak ere aipatzen dituzte Portukoek La Arena hondartzak kalterik pairatu ez duela ziurtatzeko. Txostenek esaten dutena beraiek beste inork ez du ezagutzen. Zalantza asko daude erabilitako metodologiaz eta ikerketak egiteko hautatutako garaiaz, neguko mareak

agertu baino lehen. Bestalde, Muskizeko udal ordezkariak jakitera emandako datuen arabera, maiatzetik azarora bitartean hondartzak 13.000 metro kubo harea galdu ditu. Azaroan izandako ekaitzak eragina izan zuela onartuta ere, dragak eta portuko lanek zerikusia dutelakoan daude. Harea desagertu ahala, harriak ari dira azaltzen.

“Ekialdetik mendebaldera, altueran metro bat harea galdu da. Kontuan izan behar dugu hor bertan, bi kilometrorra, 20 metroko zuloa dugula. Hemen bildutako harea ez da ibaiek ekarria, sedimentazioari esker agertua da, hots, oso prozesu luzean metatua da. Lehen era etortzea zaila eta luzea izango da. Bestalde, lehen beste harea ez egoteak hondartzaren beraren egonkortasuna kolokan jartzen du. Mareak, esaterako, egun dunetaraino igotzen dira”, adierazi du Damasok. Harrien agerpena bada esamesa ugari sorrarazi dituen beste gertaera bat. Bilboko Portu Autonomotik esan dute 1965ean ere eman zela halakorik. “Baina portukoek ez dute esaten artean ere bazebilela beste draga bat, Flaño. Hark Bizkaia osoko etxeak egiteko harea atera zuen. Harriak eta meatzaritzak utzitako aztarnak, oso porlan zaharrezkoak, ez dira kasualitatea izan”. Bizkaia mendebaldeko hondartza, La Arena, arrisku bizian dago. Herritarrek baina, ez dute etsiko berau salbatzeko ahaleginean. ■

2011ko Mundiala

Partitokraziak eta kirol profesionalak badute halako aire komun bat. Lehia da nagusi, fitxaketak, saldukeriak, komunikabideetako adierazpenak, polemikak... Horregatik ez dut ulertzen nola harritu ziren hainbeste zenbaitzuk Joan Laporta futboletik alderdien arteko lehiara igaro zenean. Ez da harritzekoa, ezta ere, arrakasta eduki izana.

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Urkiza



Padroin

Datozen udal eta foru hauteskundeak iazko Futbol Mundiala balira, dudarik gabe, Ezker Abertzalea Espainia litzateke. Txapeldungai behinena, gainontzeko aurkariek itzelezko ikara diote. Ez da inoiz txapelduna izan, gaitzaile porrokatua, garaitu eta arrakasta izan baino lehen nahiago hilik. Galdu arte, *basta la derrota, siempre*. Final laurdenetan etxera joatera ohituta, historiaren zamagatik ez balitz, dudarik gabeko faborito litzateke. Joko estilo aldeetik ere antzera. Azken urteotan garatutako *tiki-taka* sonatua. Bat-bikoa Espainiako Gobernuari, sonbreirua Gorenari, bizikletarena Fiskaltzari, eta abar. Taldean, gainera, “sentsibilitate ezberdineko” jokalaria daude. Oskar Matute erretaguardian, Gerard Piquéren gisara, Pello Urizar Xavi bailitzan antolatzailer lanetan. Shakira ere ez dabil urruti. Horixe omen zegoen, Gasteizko ekitaldian, poxpolin jantzitako azafata koitadua. Baina, kasu, gauzak aldatu egin baitira. Porrotaren epikaren txapeldunak, ezetzan zaildutakoak – “*siempre negativo*” Louis Van Gaal-ek esango lukeen eran— orain halako bizipoz batek hartu ditu. Oraingoak ezberdina dela ematen du, orain benetan irabaztera doazela dirudi.

Aralar Uruguai litzateke, Espainiaren kolonia ohia, eta Hego Amerikako joko adierazgarri horrek: zangozabak, bultzada disimulatuak, itxurak egiten etengabe, denbora galtzen...

Euskara jatorrean esateko, “eperra mareatzen” adituak.

Hala ere, ezin alde batera utzi betiko talde klasikoak. Alderdi Popularra Italiaren rolean. Beti lehiakor, beti prest sarekadarako, joko narrasteko. Eta ezin ahaztu, jakina, aurreko hauteskundeetako garaileak direla, egungo txapeldunak. Horien

alboan, beste finalista izan zena, Frantzia, Alderdi Sozialista. Ez dator bere momenturik onenean. Rodolfo Ares, Raymond Domenech nola, ez du inork maite, gatazka da bere habitat naturala, saminez bizi da. Aldageletan ez da giro, hika-mikak, denak elkarren kontra, adostasunik ez. Ramon Etxezarreta Nicolas Anelkarena egiten, Patxi Lopez, Thierry Henryren antzera, eskuaren laguntzaz golak sartzen, Jesus Eguiguren (Franc Ribéry) bere kasa, bost axola dena.

Baina zinezko talde klasikoetaz mintzo bagara, irabazleetan irabazleaz, hitz batean, Txapeldunaz –letra larri—, orduan Brasilez ari gara, noski; hots, nork esango luke, EAJ-PNVz. Ezagun da *rock&rolla* ez dela beren musika maitatuena, ez dakit *bossa-nova* zaleak diren, baina garbi dagoena da, izanak izan, beraiek direla faborito nagusi beti. Lider bat dute faltan, Ronaldo eta Ronaldinho gabe, Kaka sasoi eska-sean; baina EAJ, EAJ da. Juan Jose Ibarretxeren *jogo-bonito* garaia igaro dira eta orain Iñigo Urkulluren, esan nahi baita, Carlos Alberto Parreiraren pragmatikotasuna gailendu da.

Ezker Batua, UPyD eta Hamaikabat-ekin (H1!) zer gertatzen den galdetuko duzue; hurrenez hurren, Dominika, Antigua eta Barbuda. Ez dira sailkatu azkeneko faserako, eta etxean geratuko dira, 2011ko Mundiala telebistaz ikusten. Gu geu bezalaxe, latak garagardoak edaten *¡Es-pa-ña!, Allez la France!* edo antzekoren bat oihukatzen dugun bitartean. ■

Datozen udal eta foru hauteskundeak iazko

Futbol Mundiala balira, dudarik gabe,

Ezker Abertzalea Espainia litzateke.

Txapeldungai behinena, gainontzeko

aurkariek itzelezko ikara diote

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Pili Yoldi

KAZETARIA

Gure Alhambrak

Nork esan dezake Alhambra berea duela? Granadarrek ere ezin dute esan berena denik, beren hirian egonda ere, gizon-emakume guztien ondarea delako. Eta ez baka-rrik Munduko Ondasunaren parte eta bitxi kuttuna izateagatik, bere balorea kalkulaezi-na delako baizik.

Nafarroako Aldude aldeko Antzeri Pagadia ez da arabiarra, ezta harri edo adreiluzko jauregia ere: Erroibar-koa da, zuhaitzez, orbelaz eta habiaz eraikita dagoen paradisua dugu. XIII. mendean, Alhambra jauregia eraiki zenean, Antzeri Pagadiak jadanik bazeraman zenbait urte Pirinio aldean, isil-isilik, lur azpiko altxorra eraikitzen, oihanpea aberasten, ehun-ka pago etengabe zeruraino hazten.

Aldude taldeak eta SEO Birdlifel (Espainiako Ornitologia Elkarte) piztu dute alarma gorria: Europak eta Nafarroako Gobernuak LIC eta ZEC izendatutako zona da, hots, Europar Batasunerako Interesgunea eta Kontserbazioko Gune Berezia, beste arrazoi askoren artean, desagertzeko arriskuan dagoen okil gibel nabarra habitat berezi honetan dagoelako.

Arazoaren beste aldean MAGNA izeneko multina-zionala dago, magnesita aurkitu baitu pagadiaren bihotzean eta aurren hasi nahi du ateratzen, Zilbeti herritik kilometro eta erdira kokatuko omen duen meategitik. Babestutako zonen debekuak eta arazoak



JOSU SANTESTEBAN



Kontzeju batek ba al du
eskubiderik herritar guztien

ondare babestua

horrela saltzeko?



saihesteko, Nafarroako Gobernuak, kontzejuak eta udalak MAGNArekin akordioa sinatu zuten pasa den apirilean, edozein oposiziori aurre egiteko. Aurretik, Baztango Erdiz izeneko parajeen beste magnesita harrobi bat aurkitu zuten, baina baztandarenean topatu zituzten ezetza eta arazoak ez omen dituzte Erroibarren aurkitu. Berrogeita hamar biztanle duen herrixkarekin errez jarri dira ados. Orain badator Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko aldeko txostena, badator beste errepide berria egiteko proiektua eta bidean daude beste bedekapen guztiak.

Auzitegitan eta Europar behar diren salaketa guztiak jartzeko prest daude ekologistak, prozedura, legeria eta nazioarteko akordioen haustura argudiatuz. Aldekoek, aldiz, babestutako glaziar garaiko txori bat industria bateko lanpostuen kontra jarritz laburbildu nahi dute arazoa.

Kontzeju batek ba al du eskubiderik herritar guztien ondare babestua horrela saltzeko? Denon aberastasuna den monumentu erraldoia hondatu gabe, ez al dago beste modurik Zilbetiren zorrei aurre egiteko? Ez al dago beste tokirik harrobia martxan jartzeko? MAGNAren mesederako egin behar den errepide berriaren hamar milioi euroekin, ezin da beste zerbait asmatu bertakoen bizimodua hobetzeko? Eta Alhambraren azpian magnesita balitz? ■

TXANDAN

Joxerra Garzia



Bibliak dioenez, Salomon erregeak honela ebazten du haur bat berengana-tzeko lehian ari diren bi emakumeetan nor den haurraren benetako ama: haurrari beso banatatik heldu eta bakoitzak bere aldera tira dezala agintzen die Salomonek emakumeei, haurra indartsuen tiratzen duenarentzat izango dela sinetsarazita.

Zergatik zehazki ez dakidala, txikitan hainbes-tetan entzun eta irakurritako pasarte hori ibili zait buruan jira-biraka hil honen 3an ETArekin agiria —oraingoz azkena— ezagutzera eman zigutenetik.

Agiriak ageri

Salomonena nola amaitu zen badaki-gu: lehiaren une jakin batean, benetako amak, haurrak min har zezakeela ikusita, jaregin dio, nahiago baitu semea beregan-dik urruti bizirik, berarekin hilik baino. Salomonek, ordea, benetako ama bera dela ateratzen du kontu, eta haurra haren esku uzten.

Agiriak ageri eta agerikoak ageri, Euskal Herri-ri alde banatatik tiraka ari zaizkion bi aldeei dago-kienez, aldeetako batek bakarrik tiratzeari utzita ez dut uste ezer askorik konponduko litzatekeenik, gurean ez baitago arrazoiari hari emango liokeen salomonik. ■

CAMINOS


3D estrategia jolasa



Noruntz eta nola iritsi?

Zein da bidea?

Taularen bi alde lotzeko bidea egiten asmatu beharko duzu kolore bereko eta forma desberdineko piezekin. Horretarako zure aurkariak bidean jartzen dizkizun oztopoak gainditu beharko dituzu.



29€

ARGIAREN
HARPIDEDUNENTZAT
24€

Ludi**toys**

ESKAERAK: ☎ 943 36 86 61 | info@luditoys.com

Arantxa Urbe

HIK HASIKO KIDEA

PISAren neurriak

Iritsi dira PISA txostenaren 2009ko emaitzak eta gertatu da lurrikara hezkuntzan. Proba horretan, ELGEko (Ekonomi Lankidetzeta eta Garapeneko Erakundea) 45 herrialdetako 4. DBHko ikasleek parte hartu zuten.

Gehienontzat, PISA probaren alderdi ezagunena, seguruenik, emaitzen sailkapen zerrenda famatua izango da. Hala ere, ikasleak irakurketan, matematikan eta zientzietan duten maila ebaluatzeaz gain, proba horrek ere ebaluatzen ditu hezkuntzan esku hartzen duten beste hainbat alderdi.

Aukera bat litzateke PISA gutxien saiatzea. Arrazoiak topatzea ez da zaila. Kanpo neurketa den heinean, haren interesgarritasunaren alde egingo dugu, ordea. Izan ere, proba horrek ikasleen errendimendua neurtzeaz gain, ikasleen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan eragiten duten baldintzen gaineko azterketa egin nahi baitu. Eta horretan da, batez ere, interesgarria, gure ustez. Azterketa hori zehaztasun zientifikoz eginez gero, lortutako informazioari esker hezkuntza prozesuaren hobekuntza —hitzaren zentzu zabalenean— lagunduko liguketen urratsak eman ahal izango genituzke.

Gaude PISA proben emaitzak baloratzera-koan jendarte ikasleei begira jarri dela ia era-



ALBERTO ELOSEGI

bat, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan parte diren beste aldeak bazter utzirik. Batzuek esan dute, baina, gure hezigunee- tan irakasteko modua memoristikoa eta teo- rikoa dela kasurik gehienetan —gure garaie- tan bezala—, eta PISAren aztertze-ko modua gehiago kokatzen dela tauletatik, datuetatik eta grafikoetatik abiatuz problemen ebazpe- nean. Estilo desberdintasun horrek ez ote du inolako eraginik emaitze- tan?

Antza, emaitzetan gora egin duten herrialdeetan gehiago arduratzen dira irakasteko era hobetzeaz eta ez hain- beste edukiak aldatzeaz. Gainera, udalak parte hartzen duen beste gobernu eredu batekin eta zentroen autonomia maila handiagoa duten testuinguru batean emaitzak hobetu- ko liratekeela diote analista adituek. Kontuan izatekoa, ez bairik gabe!

Zer jendarte mota nahi dugu eta nola eta zein helbururekin hezi nahi ditugu bertako kideak? Erantzun die- zaiogun galdera horiei eta sakondu dezagun helburu horiek zintzoki betekoa dituen Hez- kuntza Sisteman. Norabidea eta bidea garbi izanik, probetxugarriagoak eta aberatsagoak gertatuko zaizkigu PISA eta gisako beste kanpo neurketak. Helburua baino, lan tresna baliotsuak izango dira orduan: neurrian sal- duak eta neurrian erosiak! ■

Antza, emaitzetan gora egin
duten herrialdeetan gehiago
arduratzen dira irakasteko
era hobetzeaz eta ez
hainbeste edukiak aldatzeaz

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Topatu zuena Gaztelako Getafen Realak. Paraje horietan euskal taldeak piper-potoz errezibitzen dituzte. Ohikoa dute, ez da probokazioa indar erakustea baino. Berdez jantzirik zeuden gureak, elastikoaren ezker besartean ikurrina zeramaten. Selektzioa zirudien. Antoinen (gure lagun salamankar batek Antxonito esaten dio) bigarren gola egin zuen eta elurrik eta kotxerik ez zegoenez, ikurrina musukatuz ospatu zuen bere jokaldia. Probokazioa. Horrela hartu zuen bertako zale- goak eta inork entzun nahi izaten ez dituenak orroka jaurti zizkieten. Taldekide batek baino gehiagok aurpe-

España cañi

giratu zion momentuan, Lasarteren kei- nuek ere, Antoinen ospakizunak desero- sotu egin zituela adierazten zuten. Parti- duaren ondoren, publikoki damutu zen jokalaria frantsesa. Nago, palkutik etorri zitzaiola gomendioa golen ospakizunak inprobisatzen ez duenari. Aldagela- ko zenbaiti esker oneko mezua igorri nahi ziela irudi- tzen zait, bikain tratatu dienei seguru aski. Ez zen tron- patu, hori nahi zuen egin. Antoinen ikasi du beste lezio bat oraingoan: gorrotatzen gaituzte Espainian, mende- ko nahi gaituzte, bestelakotuak. Eta inguruan, ikurrina bai baina babesle profesionalizat, peajetzat nahi dute alegia. Espainolak ditugu. ■

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

San Severinoren agiria

Urte Berriarekin eta txotx gozoari aurrea hartuta heldu zen komunikatua, agiria. Mukuru beterik zegoen Negarraldeko sagardotegia. Urteko lehen zukua dastatzeko pronto, han ziren denak: gotzain dotoreak eta haien mirabe legoak, arotz esku trebeak eta kantari besomotzak, baserrietako osaba aberatsak eta iloba ogipekoak, ezkonduak, enamoratuak, herriko nagusiak, militarrek... bai eta larru-mota guztietako erosleak eta saltzaileak ere.

Urte Berriarekin, azkenean, mahai gainean zegoen herritar denek urte luzetan igurikatutako dokumentua: San Severinoren Agiria.

“Hau da sagardo berria” esateko pronto zeuden guztiak, jarioaren espe-roan, godalet eta txoletak bete-hustu guran. Baina, Sainduaren hitzei aiduru, kateaturik geratu zen kupelean sagar-ura.

AGIRIA. Viena eta Bavieratik heldua zen Saindua, Gabonetako gnomo, azti eta laminek deiturik. Austrian eta Alemanian, hamaika monasterio fundatu eta eraikita zetorren. Besapean zekarren agiria, entzun gura zuen orori irakurtzeko.

Bere tunika higatuaren beheak jaso eta kupela handira igo zen. Arnasari eutsi zion orduan alkateak. Hazka egin zuen meza-mutilak galtzarbean. Eskuak igurtzi ijitoak.

San Severinok bi dohain zeuzkan: profeziaren grazia eta aholkuaren bertutea. Ezagunak ziren Kristandade guztian Ataulfo eta Sigeriko errege godoei nahiz Danubioko nekazariei egindako iruzkinak, izozteak leuntzeko eta uztak hobetzeko.

Dokumentua irakurtzeari ekin zion bere jatorriko hizkera-doinu markatua-ekin; ezkutuan gordeta bazeukan ere jaiotetxea zein zuen, ondo asko igartzen zitzaion erromatarra zela. Honetara zioen agiriak:

“Bizia duen orok gorets eta lauda deza-



INIGO AZKONA

Testua eta kontestua analizatu zuten. Sainduaren hitz egiteko modua eta tonua. Hitzaldirako erabili zuen kupelaren zura. Eztabaida handia ekarri zuen haren tunikaren behe higatu eta urratuak



irudia:

Antton Olariaga

la Jainkoa. Ontasun maximoaren bedein-kapena gura baduzue, jagon eta zain itza-zue besteen eskubideak. Eta lagundu behartsuei”.

BAI, BAINA. Soka luzea ekarri zuten Sainduaren esaldi laburrek. Diskurtso bildua izan arren, platika hura besterik ez zebilen jendearen ahotan.

Aintzakotzat hartu zituzten batzuek kupelaren gainetik esandako guztiak. Taxugabeko eta desegokitzen jo zituzten beste askok erromatarren juzguak: batzuek den-denak, hainbatek zenbait.

—Ez diat ulertzen trapu zahar horiekin nola jantzita etorri den— lagun batek besteari.

—Niri, aldiz, haren hizketa-doinua egin zaidak arraroa.

Eztabaidari ekin zioten batzuek eta besteek. “Baina, ez al du esan ‘gorets eta lauda’? Zer gehiago esan behar zuen, ba?” zioen begi urdineko neska-txa batek. “Bai, baina esan izan balu ‘ohoratu eta goraldu’, argiago izango zen dena”, haren bikoteak.

—Eta, zer diostan ‘besteen eskubideak’ aipatzeaz? Nortzuk dira ‘beste’ horiek?—dendari batek.

—Ez zakinat; halere, ‘beste’ horien baitan, ez al gara denak kabituko?— haren bezero ohikoena.

Goztakinak, legoak, arotzak, kantariak, ezkonduak, enamoratuak, herriko nagusiak, militarrek... denak abiatu ziren agiriaren interpretazio zurrundetara. Hala eska-tzen zuen okasioak, noski.

Testua eta kontestua analizatu zuten. Sainduaren hitz egiteko modua eta tonua. Hitzaldirako erabili zuen kupelaren zura. Eztabaida handia ekarri zuen haren tuni-karen behe higatu eta urratuak.

Gogoeten ekaitza hartan, sermoi harta-tik denek ahaztuta zuten kontu batekin azaldu zen Negarraldeko etxekoandrea: “Hori guztia ondo dago; baina, ez al du agindu behartsuak laguntzea?”. Txotxa kenduta, parrastada askatu zuen. ■

BERTSO BERRIAK

Xabier Paga

ETA kito!

INIGO AZKONA



I

Ez da erraz kontatzen
zortziehun hilketa
eta zortziehun preso
ziegan gordeta.
Hirurogei urteren
ondoren, eureka!
Adio bonba-lapa,
ciao metraileta!
Behingoz ezabatuko
esalditik ETA
eta orain azaldu
da BAINAz beteta.

II

“Baina ETAk guztia
ez du argi esan!”.
“Baina berandu dator
ezer konpon dezan!”.
“Baina ez ote dauzka
hainbat kontraesan?”.
“Baina nola sinetsi
ETArene promesan?”.
Dena ez balitz horren
pozgarria izan,
Currin-ka hasiko ziren
direnaren gisan.

III

ETArene su-etena
ozenki entzuna,
Espainiak zor dio
bere erantzuna.
herriaren eskutan
utziz Erresuma,
izan bedi bakea
zein askatasuna;
kito torturak eta
atxilotu booma.

Rodriguez Zapatero,
presidente jauna

I

Egiaztagarria
zer gauza izaki?
Semantika ardura
al zaio hainbati?
Ezjakinak badaki
galdetzen ausarki.
Galdera egiozu
guardia zibil bati,
begiak autopean
jarrita badaki,
jartzeari utziko
diolako aurki.

II

Bukaeran badira
azken bi apunte,
eskaera bat dute
firma biren truke.
Madril eta Parisa,
por favor, s'il vous plait,
bidaltzea biziki
eskertuko nuke
sinatuta itzuli
beharko digute...
Bakea ez da lortzen
“bik” nahi ez badute.

III

ETA izan berritan
zorion notizi,
tokatzen zaio hitza
hartzea Parisi:
Herriak har dezala
hitza lehenbizi
ebaz dezan nahi duen
nolanahi bereizi
edota Frantziaren
babesean bizi.

Presidente jauna den
Nicolas Sarkozy

DOINUA: “Kasik hamalau urte”.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko katera

Finantzazioa diskogintzan



Etorkizuna entzuleen esku

Diskogintzaren industria krisian dagoela, behin eta berriro errepikatzen den leloa da. Horren arrazioa? Entzuleek ez dutela diskorik erosten. Baina zer gertatuko litzateke diskoa entzuleek eurak finantzatzeko balute? Mikel Laboaren omenezko Txinaurriak eta Zea Mays-en Era diskoek zaletuei esker egin dute aurrera.

LANDER MUÑAGORRI

AUTOGESTIOAK bide luze eta zabala dauka egina diskogintzaren alorrean. Norberak bere kabuz, eskura dauzkan baliabideekin nahierara bere lana aurrera ateratzeko eredua da autogestioarena, esan beharrik ez dago. Baina gehienetan sortzaileak izaten dira proiektuak finantzatzen dituztenak. Euren poltsikotik ateratzen da dirua, eta normalean ez dute berriro berreskuratzen.

Eguno teknologiak prozesu hori erraztu du, ekoizteko eta entzuleen artean zabaltzeko baliabide berriak eskainiz. Eta orain, web 2.0-ari esker, musikariak euren produktu autogestionatuak finantzatzeko aukerak ere topatu dituzte.

Eredu diferenteak daude eta horien artean azpimarratzekoa da *Crowd funding*-a, edo finantzazio jendetsua. Eredu honek inberti-



Zea Mays taldeak (argazkian eskuin aldean) eta Bidehutsek 2010aren hondarrean hurrenez hurren argitaratu dituzten *Era* eta *Txinaurriak* diskoetan finantzazio modu berritzaileak erabili dituzte. Izan dira antzeko esperientzia gehiago ere. Eta, duda gutxi, aurrerantzean gehiago ikusiko ditugu.

tzaile bakarra baino, asko bilatzen ditu, hau da, diru kopuru txikia eskainiko duten hamai-ka inbertitzaile. Taldeak izango du hitza proiektu batek aurrera edo atzera egingo duen erabakitzeke, ez inbertitzaile handi bakarrak. Gainera, inbertitzaile izateko aukera hori denei zabaltzen zaienez, esan daiteke gizarteari eskaintzen zaiola erabakitzeke eskubidea. Eta dirua jarri duen pertsona bakoitzak kaleratuko den disko edo produktaren gainean zenbait eskubide izango ditu.

Eredu horren adibide da 1989an Extremoduro taldeak egin zuena. Urte hartan 250 txartel saldu zituzten, bakoitza 1.000 pezeta-ren truke, eta jasotako diruarekin *Rock transgresivo* maketa grabatu zuen. Laguntzaren truke, bonua erosi zutenen izenak agertzen ziren maketaren kredituetan. Garai haietan beste aukerarik ez, eta ahoz ahokoaren bidez saldu ziren bonuak, Internet erabili gabe.

Baina Internetek erakusten du finantzazio eredu hau zenbateraino den baliagarri. Marillion talde britainiarra izan zen sarea erabiltzen lehenengoetarikoa: 1997an Europako biraren ondoren, AEBtako birarentzat ez zuten behar adina diru. Halaxe adierazi zuen taldekide batek beraien webgunean, eta hori ikusirik, proposamena luzatu zuen jarraitzaile

batek, dirua Internet bidez biltzeko zaleen artean. Baita lortu ere, bost hilabeteren buruan 60.000 dolar lortu baitzituzten. Ordainetan, taldeak bira horretan grabatutako diskoa dirua jarritako zale bakoitzari oparitu zien. Orduz geroztik, Marillionek bira berriren bat egin behar duen bakoitzean, sistema honi heltzen dio.

Gurean, *Txinaurriak*

Euskal musikagintzan ere, *Crowd Funding* ereduaren antzeko esperientziak egon dira azken denboraldian. Pasa den urteko abenduan Mikel Laboaren omenez Bidehuts-ek argitaratu zuen *Txinaurriak* diskoak, esaterako, antzeko oinarriak izan ditu. Argitaratze data baino hiru hilabete lehenago jarri zuten salgai Interneten, parte hartzen zuten musika taldeen izenak bakarrik jakinarazita. Aldez aurretik sarearen bidez erosiz gero, merkeago lor zezaketen erosleek, eta era horretan 200 kopia inguru saldu zituzten. Lortutako diruarekin diskoa aurretik finantzatzea lortu ez bazuten ere, “hasiera batean egin beharreko gastu batzuei aurre egiteko lagundu zigun”, dio Asier Zulueta Bidehuts-eko kideak.

Aurre-salmentaren kontzeptua, hala ere, ez da gauza berria Bidehutsentzat. 2009an

Anariren *Irla Izan* diskoarekin estreinakoz egin zuten eta geroztik disko guztiak kaleratu baino hiru aste lehenago jartzen dituzte salgai webgunean. Baina salmenta bide honek ez du aurretiazko finantzazioa bermatzen. Argitaratzerakoan erosleei zenbat disko bidali behar zaizkien jakiteko balio du. “Bidehutsen bakoitzak bere diskoa ekoizten du, talde bakoitzak daki zenbat kontzertu eskaini behar dituen argitalpen berriarekin, zein diru duen aurreztuta edo zenbat jarri behar duen bere patrikatik”, azaldu du Zulueta. Baina *Txinaurriak* argitalpenarekin ezberdina izan zen. “Bidehutsen talde guztia geunden proiektu honen atzean, eta bakoitzak bere poltsikotik dirua ez jartzeko, horregatik egin genuen eredu honen aldeko apustua. Einstürzende Neubaten talde alemaniarrek ere, hurrengo diskoa ordaintzeko laguntza eskatu zien euren zaletuei. Adibide hori gure artean aipatu genuen, eta bideragarria zela iruditu zitzaigun”. Mikel Laboaren omenezko diskoa finantzatzeko adina dirurik ez zuten lortu, baina hala ere, eredu honekin gustura agertu da Asier Zulueta.

Zuzenekoak, diskoaren truke

Zea Mays taldeak 2010. urtean argitaratu du azken lana, *Era* izenburupean. Autogestioan bide oparoa egin dute bilbotarrek, eta oraingo lan honetan pauso bat harago joan dira. Aurreko diskoetan sekula ez zuten jarritako dirua berreskuratu, ez zelako salmentekin lortutakoaren parera iristen. Baina azken diskoan lortu dute. Beste eredu bati heldu diote horretarako: lan berriaren zazpi aurkezpen kontzertuetan diskoa doan banatu zuten ikusleen artean. Diskoa eta zuzenekoak, dena, 10 euroren truke.

“Diskoetxeen mundu honekin oso erreta gaude. Diskoa osorik guk egin badugu, ez gara ibili behar diskoetxe baten atzetik lan berri bat argitaratu nahi dugun bakoitzean”, dio Aiora Renteria taldeko abeslariak. Disko

baten ekoizpena nola egiten den ikasten, pausoz pauso joan dira bilbotarrak. “Dena gure kabuz egiteko gai ginen, baina banatzaileekin jarraitzeak ez gintuen sobera kontzentzitzen”. Horregatik, lokalean *brainstorming* baten ondoren bururatu zitzaizen zuzenekoetan diskoa banatzea. “Era originala iruditu zitzaigun banaketarako, azken finean interesgarria da zuzenean ikusitako talde baten diskoa etxera eramatea...”, dio Renteriak. Eredua eurei bururatu baldin bazitzaizen ere, ostera jabetu ziren Ezkerraldeko talde batek aurretik antzeko sistema erabili zuela diskoak banatzeko. Miel De Hiel (MDH) taldeak kontzertuetan diskoak sarreraren truke banatu zituen Zea Maysek bezalaxe.

“Diskoa osorik guk egiten badugu, ez gara ibili behar diskoetxe baten atzetik lan berri bat argitaratu nahi dugun bakoitzean”

AIORA RENTERIA, ZEA MAYS

Eredu arrakastatsua dela uste du Aiora Renteriak, diskoaren gastuak lehen aldiz banaketarekin berdindu dituztelako. Euskal Herri osoan emandako aurkezpeneko zazpi kontzertuetara 3.500 pertsona inguru bertaratu ziren, eta beste hainbeste disko banatu. “Promozionalki, gainera, eredu ona izan da, jarraitzaile asko urduri jarri baitzen, eta e-mail mordoa jaso dugu diskoa nola lortu ahal zezaketen galdetuz”, azaldu du. Azkenean, jendeak erakutsitako nahiari erantzunez, dendetara ere zabaldu dute diskoa, kasu honetan, banatzaile baten eskutik.

Etorkizuna, taldeen eta entzuleen esku

Diskogintza finantzatzeko ereduak etorkizunean nondik joango diren galdetzean, Aiora Renteriak dio taldeek hartuko dutela euren lanen gaineko kontrola. “Taldeen atera beharko dute hau guztia aurrera, bestela krisialdiarekin gehien galtzen dugunak gu izango gara”. Egoerari aurre egiteko, sortzaileak eredu berriak asmatzen ari dira, baina “diskoetxeek ere berdina egin beharko lukete. Zergatik ez dute begiratzen kanpoan zer egiten ari diren?”.

Sortzaileek aurrea hartu dute eta finantzazio eredu berriekin ari dira lanean. Diru bila hastean, musikaria orain ez da inbertitzaile handi batengana bideratuko, jarraitzaile fideleengana baizik. Entzulearen esku dago etorkizuna. ■



Liburuak

KRITIKA

Bitsa eskuetan. Miren Agur Meabe.
Susa. 90 orrialde. 12,83 euro.



Helduen literatura
Gema Lasarte

Sarri apostolua eta inoiz euskalgeisha

EUSKAL POESIAREN ARROSA den andre mamitsu honek, hiru atal aski ezberdin dituen poema landa edo itsasoa paratu digu, likidotasunaren semantikak eskaintzen duen jariokortasun guztia literatur aitzakia bilakatuz.

Meabek ondo aitortzen duen bezala, ispiluak ditu azalean eta bere trakeak badu izan bere mintzoa. Nitasunetik idazten digu egileak, ahots propioa ez ezik, identitate eraikuntzarako ispilu anitz jarri dizkio haren bizi esperientziei. Zaila egiten da egilearen eta subjektu poetikoaren arteko diferentziarik aurkitzea, balirudike etenik gabe Meabe bera dela erraieratik idazten ari zaiguna. Esaten digu, oroitzen duena dela, horixe dela, besterik ez; ez dela perfektua, Parkak politago eta argiagoak direla. “Uhartre isila eta sakan ozena, neu, uneoro poeta, noizean behin jueza, sarri apostolua eta inoiz euskalgeisha”.

Zahartzen ari den emakume baten testigantza ematen digu. Hala, laster semeak ez diola “pa” emango, laster hilero hilekorik ez duela izango esaten digu. Baina, sekula ahaztu gabe idazle honek sukaldearen minipoetika oso duela maite, jarraitzen duela sukaldean idazten makarroiak edo hitzak egosi bitartean. Eta hori, Meaberen eta bere poetikaren konstante bezala azpimarratu beharko genuke. Izan ere, errelato handiak, egia absolutuak etxeko gauza txikiekin, emakumeen kontuekin nahasteko, josteko etengabeko nahia erakutsi ohi baitu Meabek. Emetasunaren aldarria edozein unetan egiteko gogoia eta beharra.

Egia txiki hauek, ordea, bakardadea, heriotza eta maitasuna bezalako gai handiekin lotu ditu Meabek liburuaren joanean. Horrela, bigarren atala oso-osorik heriotzari begiratu bat da. Amaren heriotza. Ama hitz egiten jarri du *Hobia* poeman eta estreinakoz poetaren ama mintzo zaigu eta jakin dugu poetak begia galdu zuenean, edota abortuen garaian, ama eta literatura izan zituela sufrimenduan lagun.

Azken atalean, Meabek, gai unibertsalak albo batera utzita, zapi-txo intimoak eskaini dizkigu. Bizitzeko beste modu batzuk. Maitasun erromantikoak ahaztuz, kontrabandoko maitasunaz, gurpil gabeko, etxerik gabeko maitasunaz mintzo zaigu beste gauza askoren artean. “Zu maitatzea zen izotz artean saltoka ibiltzea, haize zorrotzaren deiei baietz, baietz esatea (...) Eta beste antartikan, tipula nahiz arima zuritzea, geranioari eta bizitzari lurra aldatzea”.

Hitz gutxitan, binomio fantastikoak ondo josten dakien poeta honek, gairik garratzenak eta txikienak elkarrekin lotuz poema handiak, esanahi handikoak, egiten dakiela erakutsi digu berriro. Horretarako emetasunaren, azalaren, likidoen eta sukaldearen semantikak, Itsaso zabalaren, Heriotzaren nahiz Maitasunaren gai unibertsalekin ezkondu eta parez pare jarri behar izan badiu ere. Eta hor dago, nire gusturako, emakume honen poesiaren handitasuna. ■


Elaia haur zeliakoaren istorioa

Gari Berasaluzek idatzi du *Elaia*, *glutenik ez duen kolorea* liburu eta Txalapartak argitaratu du, haur eta gazte literaturari eskainitako TXta sailean. Bi urte bete baino lehen diagnostikatu zioten Elaiari zeliakia eta geroztik elikagai batzuk saihestu behar izaten ditu.

Haurraren eskutik zeliakiaren inguru-

ko zalantzak argitzen ditu Berasaluzeren liburuak: sintomak, diagnostikoa, elikadura, arriskuak eta mugak, glutenak duten eta ez duten elikagaien zerrendak...

Gainera, guraso eta haurren lagunei ere informazioa ematen die. ■



Elaia...
Gari Berasaluze.
Txalaparta.
68 orrialde.
11 euro.

Salvatore Mitxelena lehiaketako irabazleak

Zarauzko Udalak antolatzen du urtero Salvatore Mitxelena lehiaketa, herriko ikastetxeetako ikasleek euren literatur lanak aurkeztu ahal izateko. Gero, lan irabazleak liburu batean ematen ditu argitara. 2009an honakoen lanak nabarmendu dira: Alex Iribar, Igor Isusi, Erin Lasa, Jone Aizpurua, Xabier Ugalde, Ana Ocamica, Andrea Vester, Jon Argibe, Petronela-Loredana Bujo, Fatima Chairi, Sara Zulaika, Paul Beitia, Daniel Aizpurua, Ximon Aranguren, Mikel Lizarraga, Ainara Agirre, Ane Zulaika, Xanti Elola, Maite Aizpurua, Ainhoa Albizuri, Sarai Beobide eta Maialen Aldabalde-treku. ■

Salvatore Mitxelena.
Batzuen artean.
Zarauzko Udal.
148 orrialde.



Diskoak

IKER BARANDIARAN

Jantzi rockero-souleroarekin bizitutako malenkonia



B aldeko kantuak.
Txuma Murugarren.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 47'13".
10 euro.

TXUMA MURUGARRENEK ez du aurkezpenik behar. Letragile bikaina da eta makina bat disko ditu ukitu bereizgarriekin. Bere abiapuntuak pop-a (batik bat) eta rocka badira ere, horiei askotariko jantziak, giroak eta esentziak gehitzen dizkie. Azken aurreko lanak Balkanetako eta zirkuko kutsua bazituen ere, oraingoan ukitu rockero eta souleroa ekarri du, haize-instrumentuen laguntzarekin. Emaizta aurreko lanetan Txumak eskaini diguna baino erritmikagoa

da, *tempo* biziagoarekin eta Rafa Ruedaren zein Miguel Ramirezen gitarrak aske. Audiencekoekin interpretatutako country kutsuko piezaz gain, badira folkyak, rockeroak, souleroak, baita oharkabean igarotzen uztea delitua den *Kantu xalo bat* ere. Ezin ahaztu, gainera, betiko tendentziari jarraituta, malenkonia eta umore beltza oso presente dautela.

www.txumamurugarren.com

Txuma Murugarren

«Musikari askok sentitzen dugu sakonean jendeak huts egin digula»

Dagoeneko ez zaituzte hainbeste erakartzen "gaueko hiriko argi atseginek"?


Erakarri bai, beti, beste gauza bat da gaua bizitzea. Oraingoan kontenplatzailea naiz.

Oinarri erritmiko markatuago eta biziagoarekin, eta jantzi rockero-souleroarekin estali nahi duzu diskoko kantez duten malenkonia?

Hit deskatxarratu baten itxura eman nahi izan diet, baina azkenean ez dira hain deskatxarratuak atera. Eta, bai, soul eta rock zaharraren ukitua nahita egingdako keinua da.

Kantugile izateko, ezinbestekoa da "Esan zerbait berria!" esaten diguten ahotsak entzutea? Erraz ateratzen dituzu hitz dotoreak...

Bilatu egin behar dira molde berriak, ez dut esango gai berriak, ezen gure interesak, gizaki legez, lau gai oinarritzotara mugatzen baitira, baina nola esaten duzun, horrek garrantzi handia dauka.



"Jendeak ez gaitu maite, minduta gaude eta min egiten dugu kantatzean". Hala sentitzen zarete urteetan borrokan ibilitako musikari asko? Omenaldi txikia da?

Bai, gure buruari barre pixka bat egiten diot eta egia da, estali nahi dugun arren, jendeak huts egin

digula sentitzen dugu sakonean, gehiago merezi dugulakoan gaude-la.

"Denborak ez du errurik, baizik eta denborarekin egiten duguna". Ez zara zu denbora pasatzen utzi duen horietarikoa ala?

Badakit, sentitzen dudalako barruan, gauza asko ditudala egiteko oraindik, zer, ordea, ez daukat argi. Diskoak egingo ditut, seguru, baina nolakoak ez dakit. Agian nire lehenengo diskoaren zenbait kantaren bertsio berri bat, zuzeneko kontrolatu batean, baliteke...

Nola suertatu da Audiencekoekin egingdako elkarlana? Oraingoan soinu "amerikanoa"-goa hartu duzu...

Audience taldearekin harreman ona dago aspalditik eta egiten dutena miresten dut. Hortaz, zer hobe haiek nire diskora ekartzeari baino? Soinu amerikanoa maite dut, baina ez dut uste nire musika parametro horretan dagoenik.

Ezpalak

JON TORNER

Giza-irudien erakusketa Irunen



GIZAKIAREN gorputzaren funtzionalitatea erakustea helburu duen *Human Bodies... The exhibition* erakusketa paratu dute Irungo

(Gipuzkoa) Ficoban. Plastilina teknika baten bitartez egindako 150 organo eta hamar gorpu egongo dira ikusgai apirilaren 24ra bitartean. *Bazen Behin giza gorputza* marrazki bizidunetako sortzaileak daude egitasmoaren atzean. Proiektuari buruzko informazio gehiago: www.humanbodies.eu.

‘Vilaweb’, iPad-ean eta paperean

VILAWEB agerkari elektroniko katalanak iPaderako hilabetekaria aterako du martxoan. Paperean ere eskuratu ahal izango da, harpidetza bitartez. Vicent Partal Vilawebeko zuzendariak azaldu duenez, “prentsaren etorkizuna ez dago paperean, pantailetan baizik; gure obsesioa pantaila guztietan egotea da”. Papereko edizioari buruz, urteko harpidetzarekin kioskoa saihestuko dutela dio: “Formatua hausnarketakoa izango da. Albisteak webgunean eta sakelakoetan ematen ditugu. Hausnarketa eta iritzia, berriz, aldizkarian eman nahi ditugu”. Internetek komunikazioa aldatu duela gaineratu du, eta iPadak baino, sakelakoek ekarriko dituztela aldaketa gehiago (www.vilaweb.cat).

BCNegra nobela beltzari buruzko topaketak hilaren 31tik otsailaren 5era bitartean egingo dira Bartzelonan. 50 idazle baino gehiagok parte hartuko dute hainbat aretotan eskainiko diren hitzaldi, mahai-inguru, aurkezpen eta abarretan. Aurten estreinakoz, euskal idazleak izango dira bertan: Jose Javier Abasolo, Jon Arretxe, Aingeru Epalza eta Asier Muniategi.

Ibai Atutxak *Tatxatuaren azpiko nazioaz* saiakera (Utriusque Vasconiae) plazaratu du. Nazioaren kontzeptua literaturaren ikuspegitik aztertu du galdakoztarak. Besteak beste, Itxaro Bordaren poesia eta Hertzainak taldearen kantak aztertu ditu. Egilearen hitzetan, “argi geratzen da nazioa, letra larriz, ez dela existitzen, ez dagoela definizio bakar eta absolutu bat, baizik eta eraikitzen joaten dela; nazioaren definizioa geure eskuetan dagoela frogatzen du honek, eta gaitasuna badagoela birformulatzeko, Hertzainak-ek edo Itxaro Bordak egin duten bezala”.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak, Jaurilaritzak eta EITBk *Sinfokids* unitate didaktikoa sortu dute, umeengan musika zaletasuna sustatzeko helburuarekin. DVD euskarrian argitaratutako ikus-entzunezko proiektua da. Ikastetxeetan lantzeaz gain, ETBko euskarazko bi kateetan ere emango dute. DVDko edukia euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez dago.

‘Linguae Vasconum Primitiae’, euskaraz inprimatutako lehen liburua (Bernat Etxepare, 1545), Gasteizera ekarriko dute, Legebiltzarrak antolatutako *Euskara jalgi hadi plazara* erakusketara. Otsailetik martxoaren 31ra bitartean izango da han, XVI. eta XVII. mendeetako beste hainbat libururekin batera. Liburua Parisko Liburutegian dago egun.

● **Gorka Julio ‘Teketen’ Blogari.net eta Zutagu.net webguneen sortzaileak paperezko Zuzeun:** «Garrantzitsua informazio jario guztiari zukua ateratzen ikastea da. Ez maila pertsonalean bakarrik, herri mailan ere bai. Hori lortu ahal izateko, lan konkretuetan ariko diren komunitateak beharko ditugu, guztiak ondo konektatutako sareetan. (...) Helburua zehatza da, euskaraz komunikatzeko gai den sare handi baten baitan, jasotako informazio guztia ezagutza bilakatzeko gaitasuna duten komunitateak sortu eta denak besarkatuko dituen ideia berriak formulatu. Erronka handia da hau, ez baita tresna soiletan oinarritzen den zerbaite».

● **Juan de Diego musikariak *Diario de Noticias* egunkarian:** «Jazzaren gauza onena inprobisazioa da, hor, bakoitzak nahi duena egiten du. (...) Gaur egun jazz munduan potentzial handia dagoela uste dut. Gertatzen dena zera da, programatzaileek ere modu batera edo bestera jendea erakartzen jakin behar dutela. Jazzaren publikoa aldakorra izatea eragiten duten faktore asko dago. Alde batetik jaialdiak daude, horietan jende asko egoten da. (...) Gero, badira hiru pertsona soilik joaten diren lekuak ere. Baina tira, egia da gaur egun ekimenak egon badaudela eta badela jazz arduratzen den jendea».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Ray Bradburyren profezia egia bihurtu nahi dute Italian

LIBURUAK ERRETZEN hasteko puntuan daude Veneziako probintzian. Brasilek Cesare Battisti ezkerreko militante eta idazlearen estradizioa ukatu izanak eman die agintariei behar zuten aitzakia: Veneziako kultura kontseilariak, Raffaele Speranzonek (atzo neo-faxista, gaur Berlusconiaren kide), bi neurri proposatu ditu, biak ere idazle zerrenda luze baten kontra-koak. Horien aurka joateko arrazoiak? 2004an Battisti kartzelatik atera zezaten eskatu zutela. Speranzonek bi gauza agindu ditu: 1) Veneziako biblioteketatik egile horien liburuak ken ditzatela eta 2) debekatu dezatela haiekin antolatutako edozein ekitaldi (i.e. hitzaldiak, tertuliak...).

Albisteak Ray Bradburyren *Fahrenheit 451* nobelaren *spin-off* baterako materiala dirudi, baina ez, benetan ari da gertatzen. Debekatutako idazleen artean, Wu Ming kolektiboa (lehen

Luther Blissett; haien *Q* nobelaz zer edo zer idatzi genuen euskaratu zutenean, ikus 2.219. zenbakia), Massimo Carlotto (nobela beltzak idazten ditu eta bera ere jazarri zuen "justizia" italiarrak), Giorgio Agamben filosofoa, Laura Grimaldi,

Daniel Pennac... Zerrenda luzea da, liburutegiak hustu beharko lituzkete denen kontra hasiz gero. Eta beharbada hori da nahi dutena.

Ez dira, noski, Italian bakarrik gertatzen horrelakoak. Urrutirago joan gabe, Basauriko alkateak (Loly de Juan, PSE-EE) joan den azaroan Xabier Makazagaren *Manual del torturador español* herriko liburutegitik erretiratzeko agindu zuen, PPren eskaerari jarraituz. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako liburutegi publiko guztietatik ken zezatela ere eskatu zuen PPK. Blanca Urgell kultura sailburuak baretu behar izan zuen traganarrua, adierazpen askatasuna erregulatzea ez dela liburutegi publikoen betebeharra adieraziz.

Speranzonek ideia berriak eman dizkie, lehen ere artaziak erabiltzen abilak izan direnei. Prestatzen joatea izango da onena, ez baitute denbora asko beharko kanpaina berriei ekiteko (eta PPK Lopezen gobernuari organo intimoak pixka bat estutzea nahikoa izan daiteke, liburuekin egindako barbakoa itzelak ikusten hasteko). ■





txotxongiloak, ipuin kontalariak, magia, antzerkia...

01/25	18:00etan	Begoñako udalategian
		Hipo eta Tomax
01/26	18:00etan	Bilboko Karmen aretoan
		Eidabe Antzerkia
01/27	18:00etan	Bilboko Tiboli eskolan
		Panpin Panpox
01/29	11:00etan	Deustuko Bidarte udalategian
		TTR Teatro
02/01	18:00etan	Begoñako udalategian
		Txotxongilo Taldea
02/02	18:00etan	Bilboko Karmen aretoan
		Kiki eta Koko
02/03	18:00etan	Bilboko Bilborock aretoan
		Txan Magoa
02/05	11:00etan	Deustuko Bidarte udalategian
		Apika Taldea ipuin kontaketa
02/08	18:00etan	Begoñako udalategian
		Onintze eta Gari Kontukantari
02/09	18:00etan	Bilboko Karmen aretoan
		Eriz Magoa
02/10	18:00etan	Bilboko Tiboli eskolan
		Sointek Antzerkia
02/12	11:00etan	Deustuko Bidarte udalategian
		Kuko, Truko eta Bolenwaider
02/15	18:00etan	Begoñako udalategian
		Txoborro Magoa
02/16	18:00etan	Bilboko Karmen aretoan
		Potxin eta Patxin
02/17	18:00etan	Bilboko Bilborock aretoan
		Zirika Zirkus
02/19	11:00etan	Deustuko Bidarte udalategian
		Ana Meabe ipuin kontaketa
02/22	18:00etan	Begoñako udalategian
		En La Lona Antzerkia
02/23	18:00etan	Bilboko Errekaldeberri eskolan
		Rosa Martinez-en Txotxongiloak
02/24	18:00etan	Bilboko Tiboli eskolan
		Monda eta Liróna
02/26	11:00etan	Deustuko Bidarte udalategian
		Tor Magoa

Antolatzailea



Antzerkiak Bilboko

Elkarlanean



Bilboko Foru Batzarreko

Laguntzailea




hamaila

Ihesi

Testua eta argazkiak:


GORKA AZKARATE

Euskal Herria ezagutuz:
Durangaldea (Bizkaia)



Ez begiratu behera

Durangaldeko mendiak Euskal Herriko mendirik maiteenetakoak direla esatea ez da gehiegikeria. Anboto, Mugarra, Leungane, Udalaiz... Mendizale petoek eta horrenbeste ez direnek sarri aipatzen dituzte izenok. Mendizaletasun hutsetik haratago doan lotura baitugu ertz zorrotzeko gailur hauekiko. Hamaika kondairaren habia, oraindik ere karga mitologiko handia dute. Paraje hauetara ostera egitea, hodeien artean hegan egitearen parekoa da.



HODEIEN ARTEAN hegan egitearen parekoa, bai, tarteka hegan egiten ari garela pentsatuko baitugu, Durangaldeko hainbat ertz zorrotz zeharkatzeari ekinez gero. Durangaldeko gailur nagusia den Anbotora bide arruntetik igotze hutsa, adibidez, amesgaizto bilaka daiteke labar malkartsuen aurrean zorabioa sentitzeko joera duen edonorentzat. Zer esanik ez, ondorengo lerroetan proposatzen den zeharkaldiko hainbat igarobidetan. Txangozale arruntek arreta bereziz egin beharreko zeharkaldia da ondorengoa, eta eguraldi kaxkarra dagoenean bazterreraz lagatzekoa.

Urkiolako santutegia harturik abiapuntu eta helmuga, Durangaldeko gailur garrantzitsu gehienak bata bestearen atzetik kateatzea


proposatuko dizuegu. Esan gabe doa, mendian ibiltzeko nolabaiteko trebetasunaz gain —harria da protagonista ibilbide osoan zehar—, gutxieneko prestakuntza fisikoa ere behar dela, txangoa osatzea bada xede. Izan ere, igoera metatua ia 4.000 metrokoa da, eta hori, egun bakarreko ibilaldian, ez da txantxa.

Urkiolamendi, berotze ariketak

Urkiolako santutegia (700 m) atzean utzi eta Urkiolamendiko gailurra izango dugu lehenengo jomuga; igoera lasai burutu ostean iritsiko gara bertara, eta tontor berde horretatik jarraian osatuko dugun ibilbide zirkularraren gaineko ikuspegi eder-rra izango dugu. Gorputza berotzen joateko ederki baliatuko dugu Urkiolamendiko igoera pausatua,

jarraian Asuntzeko lepura jaisteko altuera galdu behar badugu ere. Poliki-poliki, Larranoko lepota eta Anbotoko gailurreria behealdetik bistaratuz, Anbotoko azken igoerara inguratuko gara. Hasieran pagadian sarturik egingo dugu gorantz, baina gailurretik gertu pagadia utzi eta ertza zeharkatu beharko dugu.

Urtetan bertatik igaro diren mendizale guztien eraginez, harkaitza erabat leunduta dago zati honetan, eta kontu handiz ibili beharko dugu irristadaren bat izan nahi ez badugu. Denbora gutxian, Anbotoko gailurrera helduko gara (1.331 m). Ikuspegia, esan beharrik ez dago, zoragarria da norabide guztietan. Zeharkaldia pixka bat luzatu nahi duenak, Orisol (Arangio) eta Izpizteko gailurretara ere igo daiteke, eta



Eskuinean, goian, Anbotoko igoera arruntaren azken txanpa, eta atzean gailurreria. Erdian saiak, Anbotoko gailurreriaren zaindari. Beheko argazkian, zuhaitz bakartia Alluitzeko igoeran; Udalaizt ikus daiteke atzeko aldean. Aurreko orrialdeko argazkian, berriz, Anbotoko gailurreria, Kurutzeta eta Elgoinea bidean.

jarraian Anbotora Zabalandiko lepotik igo, baina joan-etorriko bidea egitea tokatuko zaio ia ezinbestean, eta hori ez da sarritan gus-tagarriena.

Ertz zorrotzen bila

Lan handia dugu aurretik, eta ez dugu paisaiatz gozatzen denbora gehiegi igaroko; Durangaldeko mendietako ertz zorrotzetan hegan egitea da gure gaurko asmoa, eta horrela, Anbotoko igoera arrunteko azken metroak desegin, eta pagadian sartu aurretik Larranoko lepora eramango gaituzten margo ikur horiak aurkitzen saiatuko gara. Margo ikurrik aurkitzen ez badugu ere, ez dago zertan kezkatutik, ibilbidean ez baitago zalantzarik: gailurreria, ertza, da jarraitu beharrekoa.

Elgoia (1.250 m) eta Kurutzeta (1.215 m) gailurretatik igaroko gara Larranoko lepora ailegatu aurretik. Dagoeneko ez da hain erraza ibilbideari metroak irabaztea, eta bi eskuen laguntza beharko dugu une askotan segurtasunez aurrera egiteko. Igarobide batzuek amildegiaren ertzean propio eskegiak dirudite, eta kontu handiz ibili beharko dugu. Kontu handiz, baina izugarri gozatu. Harri artean denboratxo batez gora eta behera ibili ostean, Larranoko lepo inguruko zelaia atsedent hartzeko modukoak dira. Beharko atsedena, bai, ondoren datorkigunera: Larranotik Alluitzerako zatia.

Larrano Puntie (980 m) atzean utzi eta arreta handiz egingo dugu aurrera, bi eskuez lagunduz gure mugimendu ia bakoitzari. Tarteka

ez da erraza orekari eustea, eta Alluitzeko gailurra geroz eta gertuago dakusagun arren, aurrera egitea bereziki neketsua denaren irudipena izango dugu. Harik eta Infernuko Zubi sonatuan ertzaren zailtasun mailak gorenaz jotzen duen arte.

Infernuko Zubian aurrera

Igarobide arriskutsua ikuspegi objektibo batetik behatuz gero, zailtasuna eta arriskua ez dira muturrekoak. Arreta eskatzen duen eremua da, horretan ez dago zalantzarik, baina zatirik aereoena saihesteko aukera dago, ertza bera baino metro batzuk beheago doan bidexkari jarraitu eta segidan besoen laguntzaz baliatuz (Larranotik Alluitzerako noranzkoan). Edozein kasutan, eguraldia kaxkarra denean eta harria



Anbotoren gailurrak itxura hau izan ohi du neguan.

heze edo busti dagoenean, hobe beste mendiren batera joatea.

Larranoko lepotik Alluitzeko tontorrera doan ertza norabide batean zein bestean zeharkatu duen orok ederki daki naturak ezkututzen duenaren berri. Ertza zorrotza da zenbait puntutan, eta oso zorrotza, gure mendiotako puntu beltzetako bat den Infernuko Zubian.

Zilegi da laguntza?

Azken boladan eztabaida sutsua piztu da Infernuko Zubia igarobide seguruagoa bilakatzeko hartuko omen dituzten neurrien inguruan. Aukera bat baino gehiago dago mahai gainean: denboraren joanak eta mendizaleen joan-etorriek erabat leundutako harkaitzak zizelkatu eta laztu, burdinazko katea itsatsi harkaitzari... Horrelako kasuetan ohikoa den moduan, hartuko omen dituzten neurriek aldeko eta kontrako iritziak sorrarazi dituzte. Katea bai, ala ez? Mendia, natura, bere

horretan utzi, ala istripuak eragotzi ditzakeen tramankulu laguntzaile hau itsatsi harkaitzari? Bestela esan-

Azken boladan eztabaida sutsua piztu da Infernuko Zubia igarobide seguruagoa bilakatzeko hartuko omen dituzten neurrien inguruan


da, katea ezartzeak istripuak gutxitzeko balioko al du benetan?

Gure mendietan ez ezik, beste mendikate sonatu eta ezagun askotan ere ohikoa da horrelako kate, iltze eta elementu lagungarriak aurkitzea. Boteprotoan, Aiako Harriko (Gipuzkoa) burdinazko iltzea, Txurumurru eta Erroilbide gailuraren arteko pasabidean lagungarri izango zaizkigunak, edo Peña Carriako (Araba) kate, iltze eta gainerakoak datozkigu gogora. Pirinioetan, ugari dira horrelako adibideak. Balaitouseko Latour atakako iltzeak, Anayet mendiko katea, Ordesako

Sarrioen pasabideko katea... Bide arruntetan ez ezik, jende gutxiago ibiltzen den beste hainbat menditan ere horrelako ekipazio ugari daude Pirinioetan. Mundu zabalean ere, ugari dira adibideak, Alpeetara joan besterik ez dago. Infernuko Zubian jarriko luketen katea ez litzateke, beraz, lehenengoa izango.

Eta laguntza kalterako balitz?

Mendizale askoren aburuz, mendia dagoen horretan utzi beharko litzateke, inolako elementu lagungarririk gabe. Mendietan asko dira, ordea, elementu lagungarriak. Infernuko Zubitik lerro zuzenean kilometro eskasera dagoen Atxartera joan eta ikusi besterik ez dago, bertako paretetan, euskal eskalatzaileen jardungune historikoetako bat izanik, dau den torloju, rapelerako ekipazio, kate eta gainerakoak, harkaitza zultu ostean berari itsatsirik, noski. Non dago muga? Zer da zilegi, eta zer ez? Badirudi natura nahi dugu-



Untzillaitz mendia, elurpean.

nean edo komeni zaigunean baino ez dugula babesten...

Bizi garen munduan bizi gara, egia, baina hausnar ditzagun horrelako kasuak patxadaz eta eragin diezaiozun buruari birritan erabaki atzeraezina hartu aurretik. Izan ere, katea ezartzeak, arriskua gutxitu baino, mendian ibiltzen trebatuegia ez dagoen jendea erakarriko luke, balizko segurtasun horren amuarekin, eta pentsatzekoa da istripu kopurua ez litzatekeela gutxituko, naturari kaltea egiteaz gain.

Infernuko Zubitik Alluitzera

Behin Infernuko zubia igarota, eskalada labor batek eramango gaitu Alluitzeko (1.040 m) gailur ederrera. Jaitsiera gogorra da, Alluitz eta Aitz-txiki banatzen

dituen Artolako lepora. Zuzenean Atxartera jotzeko tentazioa izatea normala da, baina ez zaigu gehiegi kostako Aitz-txikira (791 m) joan-

Infernuko Zubian katea ezartzeak, arriskua gutxitu baino, mendian ibiltzen trebatuegia ez dagoen jendea erakarriko luke, balizko segurtasun horren amuarekin, eta pentsatzekoa da istripu kopurua ez litzatekeela gutxituko

etorri azkarra egitea, beste gailur bat poltsikoratzeko baino ez bada ere. Jaitsiera gogorraren ostean Atxarteko zulora helduko gara, eta Untzillaitzeko malda beldurgarriari aurre egiteko ordua iritsiko da.



Diagonal Handia izenez ezagututako bidexkatik egingo dugu gorantz, malda benetan pikoari aurre eginez. Xenda arrasto haute-manezin batek eramango gaitu harrizko plaka erabat lau batzuen oinetara. Igoerako igarobide zailena da. Ezkerretik gaindituko dugu, kontu handiz, igarobide zail xamar hau, eta etenik gabe gorantz egingo dugu, harik eta Saukuko koba pasa, gailurreria eta ertza begiz jo eta gailurrera heltzen garen arte: Untzillaitz (934 m).

Txangoak ez du etenik, eta gutxi dira, ibilaldiaren joanean, atsedenerako tarteak. Untzillaitzeko gailurretik Mañarira jaitea zangoak izugarri zigortu beharraren sinonimo da, malda izugarri pikoa baita herriko kaleetara iritsi arte. Ia 800 metroko jaitsiera etenik gabea, eta beste 800 metro igo beharko ditugu jarraian, Mugarrikolanda lepora, lehenik, eta Mugarrako gailurrera (964 m), segidan, iristeko.

Berriz ere Mugarrikolanda lepora jaitsi eta Artatzagane (995 m) eta Leungane (1.009 m) igoko ditugu, Inungane lepora jaitsi, Errialtabaso gailurra (1.018 m) igo (bide nagusitik pixka bat desbideratu beharko dugu horretarako) eta 36ko gerran borrokatu zirenen memoria betiko gordetzen duen Saibiko gailurra (946 m) menderatuko dugu, igoera azkarrean, txangoa amaitzen ari garela ohartzen garen neurrian. Jaitsiera azkar batek eramango gaitu berriz ere Urkiolako santutegira, hainbeste ezkongaberen otoitz gunera. ■

Oxangoiti
Hotel Jauregia

Gamarra kalea, 2
Lekeitio (Bizkaia)
94 465 05 55 / 659 393 928
www.oxangoiti.net







Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Belgikan

Flandestarren eta waloien arteko liskarrak etengabeak ziren Brusela inguruko udalerrri honetan. Eguero bazen zerbait eta egoerari irtenbidea eman nahian, goiz batez alkateak herriko plaza nagusian bildu zituen herritar guztiak. Udaletxeko balkoira atera eta bozgorailuetatik hizketan hasi zen:

– Ezer baino lehen, flandestarrak jar zaitezte plazaren ezkerrean eta waloak eskuinaldean.

Jende guztia batera eta bestera mugitzen hasi zen, zuloan makila sartuta astindutako inurritegi bateko inurriak bailiran. Handik minutu gutxira jende multzo handi bat ikus zitekeen ezkerrean eta beste multzo handi bat eskuinaldean. Erdian, dozena bat beltz. Eta orduan, haietako batek:

– Eta gu be'gikarrok non jarri behar dugu, a'kate jauna?

Soluzioa

B	B	J	M	O	B	B	J	L	G	I
J	A	B	E	T	S	A	R	T	E	L
B	E	S	A	R	A	R	I	O	N	T
B	E	R	R	I	A	T	A	U	L	U
B	E	R	R	I	A	T	A	U	L	U
B	E	R	R	I	A	T	A	U	L	U
B	E	R	R	I	A	T	A	U	L	U
B	E	R	R	I	A	T	A	U	L	U
B	E	R	R	I	A	T	A	U	L	U
B	E	R	R	I	A	T	A	U	L	U

beranduegi

ARGIAren albistegia interneten

Beranduegi gatoz, telezaborrak hartu dizu egongela. Txutxumutxu, pilota partidu, reallity show eta informazio transgenikoek burmuina kutsatzen dizute.

Bai, guri ere bai.

Horregatik erabaki dugu ARGIA n, astean behin Interneteko propio pentsatutako telebista saio bat egitea. Euskarazkoa. Ironikoa. Berritzailea. Laburra, baino sakona.

Beranduegi... ohiko eredueta erortzeko.



telebista
saio
berria

Asteartero...

- » elkarriketak
- » blog irakurketa
- » erreportaje sakonak
- » aktualitatearen analisi ironikoa
- » lehiaketa barregarriak
- » ...

www.argia.com

www.beranduegi.tv



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Afrikako barraskilo erraldoi inbaditzailea Iberiar penintsulan



WWW.REUNIONRAMA.COM

ANDALUZIAKO INGURUMEN SAILAK argi gorria piztu du barraskilo erraldoi afrikarraren (*Achatina fulica*) hedapena dela eta. Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Erakundearen arabera 100 espezie inbaditzaileen artean dago barakuilu mota hori. Kalte ekologikoez gain gizakiarengan gaixotasunak sor ditzake: meningoentzefalitis eosinofilikoa eta angiostrongiliasis abdominala, besteak beste.

*Achatina fulica*k 200gramoko pisua izan dezake, eta 30 zentimetroko luzera. Helduen oskola itxura konikokoa eta marroixka da; gazteek, berriz, kolore argiagoak eta banka horixkak izan ditzakete.

Batez besteko bizia bospasei urtekoa izaten da eta 1.000 arrautzatik gora jar ditzake ale batek; landareez gain gorotzak jan ditzakete, eta erresistentzia handia dutenez plaga gisa hartu dira Australian eta AEBetan. Inbaditu duten hainbat lekutan, Brasil izan daiteke horren adibidea, bertako moluskuak akabatu dituztela frogatu da.

Lo egiten ez denean kaloriak erretzen dira

JOURNAL OF PHYSIOLOGY aldizkarian argitara emandako artikulua batean, gau batean lorik ez egiteak 135 kaloria erretzea dakarrela adierazi dut.

Hau da, bi xerra ogik edo 225 mililitro esne erdigaingabetuk duten kaloria kopurua. Beste era batera esanda, gau oso batean lo ez egitean ordu erdiko ibilaldi arin batean gastatzen dugun energia kopurua gastatzen da.

Datu hori lortzeko zazpi heldu gazte hautatu zituzten, hainbat proba egiteko. Lehen egunean hamasei ordutan esna mantendu zituzten, eta hurrengo zortziak lotan igaro zituzten. Bigarren eta hirugarren egunetan, 40 ordu esna egon eta gero, zortzi orduko loaldia egin zuten.

Horrenbestez, Kenneth Wright ikerlariak frogatutzat eman du esna egotearen eta lo egotearen artean korrelazioa dagoela energia kontsumoari dagokionez, eta lorik ez egiteak metabolismoan kostua baduela.



CINEFORUM.BLOG.COM.ES

Beren jatorrizko itxuraz "oroitzen" diren polimeroak

Polimero horiek, konprimituak edo tolestuak izan ondoren tenperatura baten gaintik berotzen badira, jatorrizko itxura hartzen dute berriz. Aplikazio ugari izan ditzakete eraikuntzan eta baita medikuntzan ere. Material horiek ez dira gaur aurkitutakoak, baina aurrerapenak izan dira haien inguruan. Artikulu hau horietako batzuez mintzo da.

<http://ttiki.com/22140> (Gaztelaniaz)

Bioerregaiak lortu bakterioen bidez

Jakina da hidrogenoa dela lor genezakeen erregairik ugariena eta ekologikoa: ia agortezina da eta ez du hondakinik sortzen. Baina ezagunak dira hidrogenoa soila sortzeko dau den zailtasunak. Artikulu honetan bakterioen alorrean lortutako aurrerapenak aurkezten dira.

<http://ttiki.com/22141> (Gaztelaniaz)

Internet arriskutsua ote ume eta gazteentzat?

Europako 25 estatutan egindako inkesta baten arabera, 9 eta 16 urte arteko ume eta gazteen %12k baino ez du esperientzia txar edo kaltegarria izan Interneten. Ez dirudi kopuru handia denik, batez ere telebistarekin alderatzen bada.

<http://ttiki.com/22143> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Mugarrotik Ipinabarrera

ZUHAITZ TANTAI EDO LIZARRETATIK abiatu, txaratik barrena igaro eta mugarro hauskorren gerizpe arris-kutsuan hartu genuen abaro. Mugarroari tarteka hostoz jantzitako abarrak moztu eta mandioan jasotzen ziren negu partean abereei majeran emateko. Inork ezagutzen al du lan hau egin izan duenik edo, hobe, eusten dionen bat? Gustura borobilduko nuke abaro ilunabar bat harekin, galdera batean: zein ilar-gitan mozten dituzu? Zein zuhaitz da egokiena? Zer izen du hosto ihardun adar sortak? Zumearekin ala zein piru edo hederekin lotzen dira sorta horiek? Bazka honek zein zapore eranstean dio aziendaaren okelari, esnari, gatzari? Eta abarrez abar.

Gure basoaren tantai-lizar, txara, motz-modorro-mugarro milaka urtetako bidezidorra ipinabarretan loratzen da, hortxe jotzen du goia. Bide honetako hurrengo urratsa ipinabarrena da, bai. Izenak berak dioen eran zuhaitzaren abarrak ipini egiten dira, ipintzen zaizkio. Zuhaitz mugarroaren garapen bat da. Mugarroari adar berezi batzuk osorik utzita egiten da ipinabarra. Geurean bi adar uzten ziren,

zuzena bat eta okerra bestea. Bi adar handi hauek etxeen eta ontzien eraikuntzarako beharrak asetzeko uzten ziren. Tamaina eta forma berezikoak ziren.

JAKOBA ERREKONDO



Ipinabarra "Tentei bakar" basoan (Oleta, Araba).

Zurokerrak erabiltzea ondo gure kulturarena da: asto-zaldiak etxegintzan eta ontzigitzako zuakerrak. Aipagarria da azken hauen forma, ontzien egiturarako okerdura jakin batekoak behar baitziren.

Oraindik ere horretan jakitun direnak harritu egiten dira gure ontzioletan egiten ziren ontzitzarren osoko zuroker berdin-berdinak ikusten dituztenero. Okerduran zaildutako egurra oso-osorik jartzen da lanean, aldenik alde zuntzak ebaki gabe dituelarik. Zurak aparteko sendotasuna, iraupena eta hauskaiztasuna ditu.

Mugarrotik ipinabarrerako urrats honek, lehenaz gain, basoari ikaragarritzko etekina erantsi zion: larreari eta erregaia irai-kuntzarako materialarena, alegia.

XVI. eta XVII.eko kanpoko ontzigileak eta gaur egungo maki-na bat arkeologo, basozale, historialari eta abar txundituta ditu basoa lantzetik abiatzen den jakintza tzar honek.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

azkonobieta
basogintza lanak

baso-berritzeak
kimatze lanak
abereentzako itxiturak

© 943 694 554 / 656 720 607
Goiballara · Azkonobieta Berri z/g
20159 Asteasu (Gipuzkoa)

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Egipto makillajeak batuta

EGIPTO, K. A. 3050. Antzinako Egiptoko lehen faraoi Narmerrek egiptoar lurraldeak batu eta I. Dinastia fundatu zuen. Batasun horren xehetasunak eguneroko objektu soil batean, paleta kosmetiko batean jasota iritsi dira guregana.

Paletaren gainaldean Narmer gudu zelaia ikuskatzen ageri da, parean, bi ilaratan paratuta, burua moztutako etsai multzoa duela. Faraoiaren segizioko kideek hainbat probintziatako estandarteak daramatzate, eta behean Narmer ikus daiteke berriz, hazpegi asiarreko arerioa zapaltzen ari den zezen bihurtua.

Atzealdean, faraoiak giza itxura du eta Horus jainkoaren azpian belauniko dagoen etsaiari kolpeka ari da. Horusen eta etsaiaren artean Niloren delta-ren sinbolo bat dago, lurralde hura jainkoaren eta, beraz, faraoiaren menpe zegoela adierazteko. Behealdean faraoiak aurrez mendean hartutako bi gizaki agertzen dira. Atzealdeko arerio horiek gutxia ile luze kizkurra eta bizarra dute; egiptoar ikonografian libiarren ezaugarriak dira horiek.

Baina paletaren mezu guztiak ez daude gudu aferei lotuta. Gainaldean Narmerrek "koroa gorria" delakoa darama; Behe Egiptoko koroa, alegia. Azpialdean faraoiak beste forma bat duen koroa du buruan, "koroa zuria" deitua, Goi Egipto mendean zuela adierazten duena. Batasun mezu hori gainaldeko irudi nagusiak indartzen du; lepo luze eta bihurriak elkar gurutzatuta dituzten bi feli-



WWW.EGYPTIAN-GODS.ORG

Narmer faraoiaren paleta 64 zentimetro luze eta 45 zentimetro zabal da. Makillaje hautsak nahasteko arbelezko lanabesa 1898an aurkitu zuten Quibell eta Greenek Hierakonpoliseko Horusen tenpluan. Ezkerrekoa paletaren atzealdea da eta, eskuinekoa, gainaldea.

no ageri dira. Irudi horren alegoria garbia da: bi erresumak, Goi eta Behe Egipto, errege bakar baten mendean, Narmer faraoiaren mendean daude. Eta, hain zuzen, horixe da paletaren zatirik erabilgarriena, lepoek eratzen duten zirkulua erabiltzen baitzuten makillaje hautsak nahasteko.

Horrenbestez, historiako inperiorik iraunkorrena abiatu zen eta historiako une gailen hura makillajeari lotutako objektu banal batean jaso zuten.

Arrastoak

500 emakumeren Holokaustoa

HOLOKAUSTOA bizi izan zuten 500 emakumezko idazleren lanak aztertzen eta gatzelaniara itzultzen ari dira Granadako Unibertsitateko, Alacanteko, Murtziako eta Vigoko hainbat ikerlari, gero lanok argitara emateko. Emakume horietako batzuek zuzeneko bizi-

penak kontatu zituzten eta beste batzuek, aldiz, amaren edo amonaren testigantza jaso dute (argazkian, emakumeak Theresienstadt kontzentrazio eremuan). Lehen alea, Auschwitz hil zuten Eva Heyman 13 urteko neskatokak idatzitako egunkaria izango da.

YAD VASHEM ARTXIBOA



Bake prozesuen arrastoa

18/98tik Udalbiltzara

ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Auzitegi Nazionalak aste gutxiren buruan polizia operazioak eta abso-
luzio epaiak agindu ditu. Kontrae-
sankorra dirudi, baina auzitegien
barruko pelikulak ez du zerikusirik
kanpokoarekin, Espainiako Gober-
nuak ez ezik, eskuin kontserbado-
reenak ere mugitzen ditu hariak etxe
horretan. 2006ko bake prozesua

abiatu zenean auzitegiek kolpe ugari jo zituzten han eta hemen: De Juana Chaos-i kartzela zigorra handitzea, Faisan kasuaren afera, Parot dotrina... Arnaldo Otegi bera ere espetxeratzeko agindu zuen Grande Marlaskak ETak su-etenaren iragarri eta egun gutxira. Hara zer erreflexio egiten dion Otegi Imanol Murua kazetariari *Loiolako Hegiak* liburuan: “Gure aurkako jazarpena handitu egin zen su-eten garaian. Bi irakurketa posible zeuden. Bat: Gobernuarekin hari ginela negoziatzeko eta ez Estatuarekin, eta alderdi popularrak ahalmen handia zeukala estatu aparatuetatik prozesua sabotatzeko. Bi: hori horrela izanda ere, alderdi sozialistak hori erabili egiten zuela gure posizioa baldintzatzeko”.

2006 eta 2007 artean Oslon, Genevan eta Loiolan izan ziren negoziaketek orduan irekita zeuden makrosumarioetan eragin zuten. Jarrai-Haika-Segi auzian gertatutakoa adierazgarria da. 2005eko apirilean Auzitegi Nazionalak 23 gazteren kontra idatzitako epaian esan zuen ez zutela “talde terrorista” osatzen eta ondorioz 2-3 urteko espetxe zigorra jarri zien. Gehienek prebentiboki beterik zuten espetxe aldi hori eta inor ez zen kartzelara joan. Aste gutxi batzuk geroago Espainiako Kongresuak baimena eman zion Zapaterori ETarekin elkarrizketak izateko. Hortik urte eta erdira baina, ETak Barajaseko T-4a lehertu eta prozesua porrot egitear zegoenean, Auzitegi Gorenak bertan behera utzi zuen epaia eta seina urteko kartzela zigorrarekin kondenatu zituen gazte guztiak, horietako asko sorpresaz atxilotuz gainera. Horien artean Olatz Dañobeitia zegoen, Loiolan Arnaldo Otegi eta Rufi Etxeberriarekin batera Batasunaren izenean negoziatzen aritutakoa. Espainiako Gobernuak erreklamarran gorderik zuen, negoziatzeko unean, Gorenaren sententzia.

Segiren kontrako epaiak jurisprudentzia berria markatu zuen, eta bidea ireki zuen ETaren “ingurua” terrorismoagatik prozesatzeko. Garai bertsuan 18/98 sumarioko 52 auzipetuek epaitzen aritu ziren Madrilgo Casa del Campon. Epaiaketaren saioak 2005eko azaroan hasi ziren eta 2007ko martxora arte



DANI BLANCO

18/98ko auzipetuek Iñaki de Juanaren egoera salatzen egindako bilkura Madrilen epaiatuak ziren bitartean.

iraun zuten. Auzipetua zegoen Jokin Gorostidi ezker abertzaleko militante historikoak “Estatuak bahiturik” zeudela azaldu zuen bihotzekoak jota hil aurretik. Epaiaketa amaitu eta epaia argitaratu bitartean, bake prozesua berbidertzeko azken saiakera antzua egin zuten Genevan. ETak 2007ko ekainean iragarri zuen su-etenaren amaiera eta egun gutxira Arnaldo Otegi atxilotua izan zen *Argalari* egindako omenaldi bat zela-eta. Bada, abenduan, Auzitegi Nazionalak zigor gogorrak ezarri zituzkien 18/98 auziko 46 laguni—guztira 600 urteko kartzela aldia— eta Angela Murillok, sententzia jakinarazi baino lehenago atxilo arazi zituen gehienak.

Askatasuna-ren kontrako epaiaketa ere “frigorifikoa” egon zen ia hiru urtez. 2005ean egin zuen kalifikazio agiria fiskalak, hamarna urteko kartzela zigorrak eskatuz, baina 2008ko apirila arte ez zen epaiaketa-

rik izan. Urte horretako irailean jakinarazi zuten epaia Auzitegi Nazionalako 4. Zigor Salak auzipetuei, bertan zirela, eta gehienak 8 eta 12 urte artean zigortu ondoren hauek espetxera eramateko agindu zuen epaimahaiak. Ordurako, Arnaldo Otegi espetxetik kanpo zegoen berriz, eta hilabete gutxira Sinn Féin-eko Alex Maskey-rekin batera Bilbon egindako prentsaurreko batean “berragertu” zen publikoan, gatazkari “bide baketsu eta demokratikoak erabilia” irtenbidea emateko konpromisoa azalduz; bestalde, Eugenio Etxebesteri eta Rafa Diezi egindako elkarrizketa publikatu zuen *Gara* egunkariak, *De Argel a 2009, “del resistir es vencer” al “convencer es vencer”*... Jadanik beste zerbait ari zen egosten euskal politikaren sukaldean.

Udalbiltzaren absuluzioa

Beste makrosumarioek 2006ko bake prozesuaren baitan izan duten ibilbidea eta azken patua ikusita, Udalbiltza auziaren absuluzioa seinale ona da bake biderantz. Auzipetuen esanetan, sententzia “bat dator eszenatoki berriarekin, tunelaren bestaldeko argi horrekin”. Epaiaketa garbi geratu zen auziak bultzada politikoa zuela, eta epaiak hori berretsi du, zeharka bada ere: hipotesi polizial soilek sostengaturiko akusazioak egin dituzte ministerio publikoak eta DyJ elkarteak, epaiaren esanetan. Baina juzkatutako beste auzietan bultzada politikoa

Ez da azeria izan behar jakiteko Espainiako Justizian eragiteko indarra duten Gobernuak eta estatu aparatuek, hori erabiliko dutela ETaren su-etenak irekitako garai berria baldintzatzeko



Espainiako Auzitegi Nazionala, Madrilgo Prim kalean.

ere bistakoa zen, aurretiaz bilaturiko zantzuen *colage* horrekin jokatu izan baitute akusazioek. Zer aldatu da? Testuingurua, jakina. Dena den, ez da ahaztu behar epaimahaiak aurrekari garrantzitsu bat zuela eskuartean –Egunkaria kasuarena–, eta Javier Gómez Bermúdez epaimahaiburu izan zela ordukoan ere.

Egunkariaren epaiarekin gertatu bezala, Udalbiltzakoan tribunalak argibide mamitsuak ematen ditu absoluzioa esplikatzen. Polizia txostenak frogatzen du; ETaren ideia batzuekin bat egitea ez dela delitua dio; edozein ideia, baita “sezesionista” ere, defendatzea zilegi dela argitzen du; ustez ETarenak diren *Zutabe* eta beste dokumentuen interpretazioak ez direla arrazoizkoak azpimarratzen du... “Ekimen nazionalista, baina ez terrorista”, horixe izan da denen ahotan gehien azpimarratu den esaldia. Ur sakonetan sartzen da epaimahaia, ez luke zertan hainbeste busti behar, baina bustitzen da. Dena den, auziak egindako kalteez ezer gutxi dio, eta zortzi urte linboan egon ondoren, auzipetu askok sentsazio arraroarekin hartu du epaia.

Egunkaria eta Udalbiltzako kasuek jurisprudentzia berria ireki dezakete epaitzearen dauden beste makrosumariei begira. Eta aztertu beharko litzateke zer ondorio juridiko izango duten epai horiek jadanik epaituak izan diren auzietan. Udalbiltzaren kasuan gainera, fiskalak akusatu egin zuen Garzón epaile

instruktorearen argudio berak erabiliz eta hamarna urteko kartzela zigorra eskatu zuen. Aldiz, orain absoluzioari helegiterik jartzeko asmorik ez du agertu, sententziak dioena onartuz.

Bateragunea

2009ko urriaren 13an Espainiako Polizia LABek Donostiako Igara auzoan duen egoitzan sartu zen eta hainbat lagun eraman zituzten atxilotuta: Rafa Diez, Arnaldo Otegi, Arkaitz Rodríguez, Rufi Etxeberria, Miren Zabaleta, Txelui Moreno, Mañel Serra eta Sonia Jacinto. Baltasar Garzón epaileak agindu zuen operazioa Batasuna “berregitea” egotzita; Bateragunea deitu zion auziari. Gerora ikusi denez, eta atxiloteten ondorengo ekimenek hala erakutsi dute (Altsasuko Adierazpena, *Zutik Euskal Herria* agiria, eragile subiranistekin sinaturiko akordioak...), ezker abertzaleko kide horiek bake prozesu berria hasteko lanean ari ziren. Operazio hori burutu eta urtebete pasatxora Bateragunea auzia epaiketaren atarian da. Efikazia harrigarria erakutsi du oraingotan, bestetan hainbeste urtez atzeratu izan den Auzitegi Nazionalako burokraziak. Gerry Adams-en esanetan Espainiako Gobernuak Arnaldo Otegi aske utzi behar luke, kartzelan egotea oztupoa delako “bakea lortzeko”. Zerikusirik ote du Adamsek esandakoak Bateragunea auziak hartutako abiada frenetikoarekin? Zein atakatan utzi nahi dute Otegi bake prozesua martxan

den honetan? Hamarna urteko kartzela zigorra eskatzen du fiskaltzak auzi horretako zortzi epaituentzat.

Bestalde, Bateraguneko ez da ilegalizaturiko ezker abertzaleak datozen hilabeteetan aurre egin beharko dion auzi bakarra. Batasunaren kontrako epaiketa ere –*herriko tabernen auzia*–, laster izango da. Garzónek 2002an agindu zuen Batasunaren kontrako lehen operazioa eta 2008ko apirilean amaitu zuen sumarioa. 41 lagun daude auzipetuta eta zortzi eta hamabi urte arteko kartzela zigorrak eskatu ditu fiskalak. Horrez gain, EHAK-ANVren kontrako auzian 43 pertsona epaiketaren zain daude; horietako askok kartzela aldi luzeak igaro dituzte, 2007ko urrian Segurako sarekadan atxilotu eta joan den urtera arte behin-behineko askatasuna lortu ez zutelako. Azken hilabeteetan, berriz, Segi, Askapena eta hainbat abokaturen kontrako operazioak izan dira.

Dozenaka kide daude makrosumarioetan harrapatuta eta auzitegietatik zintzilik. Beste dozenaka jadanik epaituak izan dira eta kondena luzeak betetzen ari dira espetxeetan. Ez da azeria izan behar jakiteko Espainiako Justizian eragiteko indarra duten Gobernuak eta estatu aparatuek hori erabiliko dutela ETaren su-etenak irekitako garai berria baldintzatzen. Aldiz, hau guztia ondo ateratzen bada, Gernikako Adierazpenak eskatzen duen “prozesu judizialen berrikuspena” egiteko aukera sortuko litzateke. Oraingoz, “fronte judiziala”, edo Rubalcabak dioen bezala, “Zuzenbide Estatua”, ez dago treguan. ■

SOLOZABAL
Eskura ezazu teorikoa 5 egundatan
edozein gidabaimenerako

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

Hizkuntz paisaia Donostian

Intxaurrondoko kaleak euskaldunenak

Hizkuntz paisaiatz josia dago gure egunerokotasuna. Handik eta hemendik begietan barrena dugu kaleetako eta dendetako informazioa. Ohartzen al gara, ordea, zein hizkuntzatan jasotzen dugun hori guztia?

SAIOA LABAKA

LURRALDE, eskualde edo hiri batean hizkuntza nola erabiltzen den adierazten du hizkuntz paisaiak. Hizkuntzaren bizitasunaren neurgailu gisa ere har daiteke, hein batean, kontzeptua. Orain lau urte Euskal Herriko Unibertsitateak eta Donostiako Euskararen Udal Patronatuak Donostiako hizkuntz paisaia aztertzeko ikerketa abian jarri zuten. EHUKo iker lari Jasone Cenoz eta Jokin Aiestaran izan dira azterketaren arduradunak. Ikerketaren emaitzen nondik norakoak azaldu dizkiugu Jasone Cenoz berak.

Donostiako bederatzi auzoetako (Intxaurrondo, Parte Zaharra, Loiola, Antigua, Altza, Egia, Gros, Amara eta Erdialdea) hizkuntz paisaia aztertu dute. Auzo hauetako kale nagusietan dauden establezimendu mota guztiak eta eurretan dauden errotulu, iragarki eta euskarriak izan dituzte aztergai. Hizkuntzen erabilera neurtzea izan da ikerketaren helburua.

Auzoen arteko aldeak

Hizkuntz paisaian euskararen presentzia handiena Intxaurrondon dago, (%67,4). Atzetik segika Parte Zaharra (%58,8), Loiola (55,9), Antigua (%53,9), Altza (%53,2), Egia (%52,9) eta Gros (%46) auzoak daude. Ondoko bi auzoetan, berriz, euskararen presentzia nabarmen txikiagoa da: Amara (%37,3) eta Erdialdean (%34,3). Alde han-



Donostiako paisaia linguistikoa gaztelania gailentzen da.

dia dago, esaterako, Intxaurrondoren eta Erdialdearen artean. Datuon inguruko irakurketa egiteko eskatu diogu Josune Cenoz: "Ez ditugu dendak bakarrik aztertu ikerketan, etxe-atarietako plaka profesionalak ere aztergai izan ditugu. Erdialdean eta Amaran etxe-atarietako plaka asko daude, esaterako, eta, oro har, gaztelaniaz egoten dira euskarri horiek. Intxaurrondon, berriz, etxe-atarietako plaka askoz gutxiago dago. Era berean, Intxaurrondo auzo gazteagoa eta euskaldunagoa ere bada, eta gazteek negozio berria

zabaltzerakoan euskararen aldeko hautua egitea normalagoa da".

Auzoen arteko ezberdintasunek, auzo bakoitzean topa ditzakegun establezimendu motekin eta etxe-atarietako plakekin zerikusi zuzena dute. Izan ere, euskararen erabilera eta presentzia establezimendu motaren arabera aldatu egiten da. Esaterako, taberna, jatetxe eta dendetan erabiltzen da euskara gehien, baita eraikin ofizialetan ere. Cenozek aipatu digunez, banketxeetan gero eta gehiago nabaritzen da euskararen presentzia, eta etxe-atarietan bulego-

ak iragartzen dituzten errotuluetan gaztelania hutsezko edukiak dira nagusi. Auzoetako biztanleen hizkuntz erabilera ez du hizkuntz paisaian zuzenean eragiten.

Euskara gaztelaniarekin batera

Elebitasuna Donostian errotuta dagoela adierazi du ikerketak. Halere, bi hizkuntza ofizialek paisaian duten lekua oso ezberdina da, hizkuntza bakoitzak gizartearen duen estatusaren arabera. Gaztelania gailentzen da Donostiako hizkuntz paisaian. Ia establezimendu guztietan agertzen da, aztergaiaren %90ean. Euskararen presentzia, berriz, %34tik %67ra bitartekoa da eta euskara gaztelaniarekin batera agertzen da gehienetan. Euskararen presentzia nahiko sinbolikoa da, eta euskara bigarren hizkuntza da gaztelaniatik urrun.

Aztertu dituzten euskarri elebidunetan gaztelania indartsuago ageri da euskara baino. Hizkuntza nagusia da gaztelania, bai hizkien tamainari bai eskaintako informazioari dagokionez. Euskara oso kasu gutxitan da hizkuntza gailena. Oro har, idazkun elebidunei dagokionez, %50ean gaztelania izaten da nagusi eta %10-%15 bitartean, berriz, euskara. Bestalde, erakunde publikoetan bi hizkuntzen erabilera orekatua dagoela ondorioztatu dute ikertzaileek. Alde handia dago, beraz, erakunde pribatuetatik publikoetara, eta establezimendu mota batetik bestera ere bai.

“Hizkuntz paisaiari lotuta, beste ikerketa batzuk egin ditugu Herbehereetako frisia aztertzeke. Euskararen kasua frasieraren egoerarekin erkatu dugu, eta frisia babesteko hizkuntz politika askoz ahulagoa dela ohartu gara. Frisia

oso gutxi ikusten da hizkuntz paisaian, esaterako. Euskararen egoera frasierarena baino askoz hobea da. Dena den, euskararen tokia eta funtzioa gaztelaniarekin erkatzea beste gauza bat da”, esan digu Cenoze.

Ikerketaren emaitzak eta turisten pertzepzioa ez datoz bat euskararen pisuaz ari garela. Turisten %58,6aren esanetan, Donostiako hizkuntza-paisaia euskarak gaztelaniak baino leku handiagoa edo gaztelaniak adinako lekua du

Ingelesa gora

Azken urteotan Donostiako dendetan ingelesak gero eta indar handiagoa duela ere ondorioztatu du ikerketak. Bereziki, bisitari gehien jasotzen dituzten auzoetan: Parte Zaharrean, Erdialdean, eta Grosen. Oro har, ingelesezko errotuluak %4tik %10era bitartekoak dira. Kasu gehienetan, ordea, ingelesa ez da funtzio komunikatiboarekin erabiltzen, baizik eta estetika kosmopolitagoa izateko helburuarekin.

Arropa dendetan nabaritu dute hau guztia, esaterako.

2008an Donostiara bisitan etorritako turistek hizkuntz paisaiari buruz eta hizkuntzei buruz zuten pertzepzioa aztertu zuten EHUko ikerlariek. 336 pertsona elkarrizketatu zituzten; 127 Espainiakoak eta 209 atzerrikoak.

Turisten pertzepzioaren arabera, euskarak berez duena

baino presentzia handiagoa du. Azterketan bildutako datuak eta turisten pertzepzioa ez datoz bat euskararen pisuari dagokionez. Turisten %58,6aren esanetan, Donostiako hizkuntz paisaia euskarak gaztelaniak baino leku handiagoa edo gaztelaniak adinako lekua du. Turisten iritziz, Donostia hiri elebiduna da eta lauetatik batek, ingelesa ikusten du hizkuntz paisaian.

Aurrera begira

Azterketa honetatik abiatuta, EHUko ikertzaileek beste analisi bat egingo dute, hizkuntz paisaiaren eta establezimenduetan erabiltzen den hizkuntzaren arteko erlazioa aztertzeke. Bezeroek, hizkuntza batean edo bestean egiteko hizkuntz paisaia kontuan hartzen duten aztertu nahi dute.

Egindako lanaren ostean, egoera nola ikusten duen galdetu diogu Jasone Cenozi: “Azken urteetan euskararen presentzia indartu egin delakoan nago; hezkuntza mailan eta eremu ofizialean euskararen estatusa ere handitu delako. Gure gizartearen elebitasunaren aldeko jarrera badago eta hizkuntz paisaian ere nabaritzen da hori. Hizkuntz paisaia euskararen erabilera txertatuta dagoela iruditzen zait, eta hala izan dadin bultzatzen da erakundeetatik ere”. ■

Babeslea: Hondarribiko Udala



Hondarribiko Udala

Jarrerrez eta erabilerezz

EUSKO JAURLARITZAK aurkeztu berri du *Euskara: Erabilera, jarrerak, politikak* izeneko azterlana. Euskal Autonomia Erkidegoko 1.806 biztanleri telefonozko inkestak egin dizkie. Besteak beste, ondoko datuak utzi ditu agerian inkestak: %85aren arabera, euskara jakiteak aukera gehiago izateko modua ematen du, nahiz eta gizartean gaztelania gailendu. %68k uste du euskararen garapena baikorra izango dela, haurrek euskara eskolan ikasten dutelako. %67k esan du euskararen alde egiteko neurri politikoak hartzea ezinbestekoa dela, nahiz eta guztien gogokoak ez izan. Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen

zuzendari Rober Gutierrezek hausnarketa egin du azterlanaz. Hona entresaka: “Bestalde, gehienek arabera, euskara ez da zama bat enpresentzat eta merkatarientzat, nahiz eta %21 iritzi horretakoa den. %86k erantzun dute hizkuntza guztiek garrantzi bera dutela gizateriarentzat eta bizi iraun dezaten neurriak hartu behar direla. Ez da ezer esaten (ez baita galdetu) zer eratako neurriak izan behar diren. Oso erraza da ados egotea hemen adierazten denarekin... Ekintza zehatzetan sartuko bagina, inkestatuen iritziak desberdinak izango lirateke. Azpimarratu ere egiten da neurri politikoak hartu behar direla, nahiz eta ez izan guztien gogoko. Atal honetan.

Eusko Jaurlaritzak bertan behera utzi duen Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko dekretua datorkit gogora... Horren harira, %81ek adierazi dute kontsumitzaile eta erabiltzaileek beti eskubidea dutela euskaraz zein gaztelaniaz artatuak izateko saltoki, enpresa eta administrazioaren aldetik”.

EHEren manifestazioa otsailaren 12an

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ taldeak manifestazioa deitu du otsailaren 12rako, *Sasi guztien gainetik, euskaldun eta burujabe!* lelopean. Donostian egingo da eta Bulebarretik abiatuko da. Egun horretan, EHEren sortzaileetako bat izan zen Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardeg*i idazlea omenduko dute.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN**Pentsioak, gazte langabeak eta bazterketa soziala**

Aste honetan, Hego Euskal Herrian greba orokorra deitu dute Espainiako Gobernuak egin nahi duen pentsio sistemaren erreformaren kontra, bai eta euskal erkidego eta foru administrazioen murrizketa sozialen kontra ere. Euskal gehiengo sindikalak, ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE eta HIRUK, urtarilaren 27an greba orokorra egiteko deia luzatu du. Ondoren, dei horrekin bat egin dute ESK-k, CNT-k, CGT-k eta beste kolektibo sozial batzuek. Politikaren arloan Ezker Abertzaleak, EAk, Aralarrek eta Alternatibak babestu dute. Hegoaldean sukurtsalak dituzten CCOO eta UGT espainiar sindikatuek Gobernuarekin eta patronalarekin negoziatzeko segitzen dute, eta oraingoz, inolako greba orokorrik deitzea edo babestea baztertu dute.

Greba orokorra egiteko arrazoirik baldin badago, arrazoi gehiago dute gaur lanik gabe eta lehenengo lanpostua lortu ezinik dauden gazteek, bai eta hauek lan merkatura sartzeko elkartasunez borrokan ari direnek ere —familia, lagunak, herriak, auzoak...—. Pentsioen erreformak kalte egingo die hurrengo urteetan jubilatuko behar direnei. Autonomoei gehiago eragingo die, garraioari adibidez; sektore horrentzat akabera izango da, egoera katastrofikoa jasaten ari baita. Eta 60 urterekin jubilatuko euren aldarrikapen historikoa ez da kontuan izango. Dena den, gaur lanik gabe dauden edo 30 urterekin lehen lanpostua lortu ezinean dabilen gazteek dute etorkizuna ilunen. Espainiako Estatuan gazteen langabezia tasa %40 da, Europako altuena. Nola jubilatuko dira gutxienez 15etik 20ra urte bitarteko pentsio kotizazio minimoa behar bada? Nola lor dezakete pentsio minimo bat gutxienez 40 urte baino gehiagoko kotizazioa eskatuko bada? Espainiako Gobernuak, EAJren laguntzaz egin nahi duen pentsioen erreformak, pobrezia eta bazterketa sozialera jaurtiko ditu ezinbestean.

Juan Mari Arregi

D ere duaren alde

NIZE Nafarroako Ikastetxeetako Zuzendarien Elkartek D ere duaren aldeko kanpaina abian jartzea erabaki du, Nafarroako Gobernuak ez baitu horrelakorik egiten. Otsailaren 1a bitartean *Argi ikusi*. Jarri betaurrekoak izeneko kanpaina egingo dute.

BAHEA

Alberto Barandiaranek idatzitako *Veleia afera* liburuaz Xabier Larrabek Berrian esanak: “Albertok liburua 2008ko abenduan idatzi duela ematen du, ez 2010eko azaroan. Batetik Aldundiko Batzordeko kideak baino ez ditu elkarrizketatu. Euren txostenak aurretik bazituen baina, hala ere, beharrezkotzat hartu du haien iritzia osatzea. Ikerketa lan batean ezinbestekoa zen, eta, zentzu horretan, lan erdia ondo egin du. Baina ez du gauza bera egin, ordea, beste alderdiarekin, hau da, 2010eko azarotik hona ostrakak egiazkoak izan daitezkeela esan duten beste 16 aditurekin. Beraz, informazio erdia ez da liburuan behar bezala jasotzen”.

27ko greba, XX. mendeko borroken ispilu

“EGUNGO PENTSIO SISTEMA publikoa ezin da mantendu, populazioaren zahartzearen ondorioz gero eta langile gutxiagok gero eta jubilatuko gehiago mantendu beharko duelako. Eta beraz, pentsio funts pribatuez osatu behar da egungo pentsio sistema publikoa”.

Hau da Espainiako Gobernuak 2011ko pentsioen erreforma bultzatzeko erabiltzen duen argudio nagusia. Baieztapen honek badu bere egia zatia: populazioaren zahartzearen ondorioz, pentsiodunen multzoa handitu egingo da. Beraz, suposatzea da etorkizun hurbil eta ertainean gaur egun baino diru gehiago beharko dela pentsiodun multzo horri erantzuteko. Hor bada arazo bat eta gizarteak pentsatu beharko du nola aurre egin horri.

Baina artikulua hasierako baieztapenak badu bere gezurra: arazo horri aurre egiteko ezinbestekoa dela pentsio sistema publikoa txikitzea eta pentsio sistema pribatuak handitzea. Hori ez da egia, baina egia absolutu gisa saldu nahi digute XX. mendeko 70.eko hamarkadako olatu neoliberalen gainean datozenek.

Egia benetakoa zera da: une honetan Espainiako gizarte segurantzak ez duela finantzazio arazorik, nahiz eta 90eko hamarkadatik aurrera etengabe esaten zitzaigun pentsio sistema publikoa sostenga ezina zela. Aberatsen ekonomistek era guztietako aurreikuspenak egin dituzte: 2001erako gizarte segurantzaren defizitean sartuko zela, gero 2005erako, gero 2010erako... Orain, arazoak 2027an izango ei dira, edo beranduenez 2040an.

Eta aurreikuspenak bete ez badira, funtsean bi arrazoiengatik izan da. Batetik, denbora horretan produktibitateak ere gora egin duelako eta horren ondorioz Barne Produktu Gordinak; eta bestetik, kotizatzaile



ARGAZKI PRESS / J.M.

kopuruak ere gora egin duelako, batez ere emakumezkoak eta immigranteak lan merkatuan kopuru handitan sartu izanaren ondorioz.

Etorkizunean ere pentsatzekoa da produktibitateak gora egingo duela eta egungo joerekin jarraituta, emakumeek ere jarraituko dutela lan merkatura orain baino gehiago iristen. Espainiako emakumezkoen joera da Europako Batasuneko datuetara hurbiltzea eta oraindik ere Espainia Europa baino zortzi puntu atzerago dago emakumezkoen lan merkaturatzean.

Orain arte, beraz, pentsio sistema publikoen hondoratzeaz egin diren aurreikuspen neoliberalak porrot egin badute, zergatik asmatu behar dute etorkizunean? Arrazoizkoagoa da pentsatzea datu eta hausnarketok beraien norabidea inposatzeko erabiltzen dituztela.

Eta pentsiodunentzat egokiena ote da? Bistan da ezetz, bestela galdetu haiei. Oraingoan gainera, aipatutako argudioez gain, denek onartzen dute finantza merkatuaren presioa. Edonola ere, gutxiengo

Orain arte pentsio sistema publikoen hondoratzeaz egin diren aurreikuspen neoliberalak porrot egin badute, zergatik asmatu behar dute etorkizunean?

honek aski indar du bere gezurra gizartearen zabalatzeko eta bere eredu inposatzeko. Eta gehien- go kaltetuak ezintasun nabarmena du egoerari aurre egiteko.

Pentsio publikoak ahuldu ahala, pentsio funts pribatuak handituko dira, eta hauek nagusiki bankuek

kudeatzen dituzte. Nola izan sinesgarritasunik txikiena hauengan oraindik ere haiek ekarritako krisiaren muinean bizi garenean? Nola fidatu gobernuekin, finantza sektorea kontrolatu beharraz hainbeste aritu, eta orain bankuak kontrolatzeko neurriak baino pentsioen bidez hauei diru kopuru itzelak bideratuko dizkietenean?

Ez da erraza kontraesan multzo horietan murgiltzea eta pentsatzea egoerari buelta eman dakiokela. Ez da samurra irenstea zergatik irabazi behar duen beti diruak, eta zergatik ezin diren gailendu zentzua, banaketa eta elkartasuna moduko balioak.

Eta erantzunik bada, horiek informaziotik, ikuspegi historikotik eta kontzientziaz datoz. Hamarkadetako kontua da neoliberalismoaren bultzada hau, krisitik krisira areagotzen dena, ongizatearen estatua desegiteko ahaleginean ari dena, Estatua bere adierazpen txikienera eraman nahi duena. Baina erasoaldia bada, hori da XIX. mende bukaeran eta XX.enean langileek eta populazio eremu zabalenek eskubide horien aldeko indar metaketa handia egin zutelako eta kapitala negoziatzera behartu zutelako.

Eta etorkizuna justizia sozialaren ispiluan ikusten dugunontzat, 27ko greba orokorrak ikuspegi historiko horren itzalean hartzen du bere benetako zentzua.

PELLO ZUBIRIA

Amiantoak balio du jendea hiltzeko eta filantropiarako

Amiantoak bizirik dirau, eta ez bakarrik hark gaixotu dituen milaka erietan. Herrialde aberatsenetan debekatu duten arren, beste askotan beti bezala saltzen da fibrozementua, eraikuntzarako gairik modernoenen irudipean. Bitartean, hartaz gehien aberastu den familiak orain garapen iraunkorra saltzen du, bateko eta besteko ekologistak erosiz.

MUSIKA PLAZA FILMEAN ASBESTOSI gaitzak jotako herritar batek kontatzen dun nola Orereta-Errenteriako Paisa usinan langileek bokadiloak berotzen zituzten amiantoazko bi xaflaren artean. Egon ziur gaur bertan beste milakak egiten duela gauza bera, inolako beldurrik gabe. Ikusi besterik ez dago munduan oraindik Eternit eta beste marka batzuekin zenbat fibrozementu egin, saldu eta erabiltzen den... beti bezala material berri, garbi eta erabilerrazaren famapean abonatuta.

Paco Puche andaluzak berrikitan idatzi du *Victimas y verdugos. Las mentiras del amianto, las fortunas amasadas, los delitos consumados* artikulua eta gaiari buruzko idatzi gehiago plazaratu du *El Observador* gunean. Puche lanbidez liburu saltzailea da, Malagako Prometeo eta Proteo liburu denden jabe den kooperatibako arima. Artikuluarekin oroigarri berezia egin dio Juan Aguirre izeneko lagun bati: biek ikasi omen zuten Peritaje Industrial Sevillan, Aguirre Uralita enpresan hartu zuten –Pucheri deitu zion berarentzako ere lana bazelako, baina hau beste zereginetan zebilen– eta duela gutxi hil du mesotelioma batek. Espainian, Hego Euskal Herrian ere bai, “uralita” esaten zaio asbesto edo amiantori.

Puche oraingoan oinarritu da *La mentira del amianto. Fortunas y delitos*

liburu berrian, zeina plazaratu baitu Zurichen bizi den Maria Roselli kazetari italiarrak. Hau amiantoaren biktima askorekin mintzatu da, haienzako kalteordainen galdez-munduan aurkeztu diren salaketek idatzi du, baina baita mirarizkoa omen zen asbestoarekin aberastu diren batzuek ere.

Europar Batasunaren agiri batek dio bost minutu oro hiltzen dela norbait amiantoagatik; 2030a artean 500.000 hilko omen ditu Europan eta mundu osoan hamar milioi inguru. Aseguru etxeen arabera, inoiz izan den ezbeharririk handiena. Ezbeharra? Hobe sarraskia deitzea: aspal-ditik dagoen arren zein hilgarria den, amianto erabat legezkoa baita Txinan, Indian, Brasilen, Hegoamerika ia osoan... Gero eta gehiago ekoizten eta erabiltzen da munduan.

Suitzako familia batek kontrolatu du negozioa XX. mendean. Schmidheiny sendiaren lau belaunaldi aritu dira horretan, Niederurnen herrian egoitza duen Eternit enpresaren jabe. Hamasei herrialdetan barreiatu 23.000 langile eduki zituzten. Herrian zeukan egoitza SAIAC erakundeak ere, amiantoaren prezioak, ekoizpena bezala salmenta, teknologia eta politikariak zein komunikatzaileak erosteko lobbygintza kontrolatzen zituen kartela.

1985ean Schmidheinytarren eta

Irudi handian, Ekuadorreko *Revista Publimensajen* ageri den iragarki ia obszenoa: “Lolita” itxuran posatuz neskatoak promozionatzen du Eternit marka, mende batez amiantoazko teilatu eta eraikuntzako gaietan lider izan dena. “Los ondulados están de moda” dio amiantoazko teilatuez eta “para toda la vida” omen direla. Umore beltza. Amiantokiak munduko herrialde gehienetan ekoiztu eta saltzen dira gaur ere, herritarrei ezkatatuz osasunarentzako dakartzan kalteak. Bere gune pertsonaletik hartutako argazki txikian, Stephan Schmidheiny, munduko gizonik aberatsenetakoa. Garapen iraunkorra sustatuz negozioa egin daitekeela argiki aldarrikatuz, ongintzako Avina eta Viva Trust fundazioetan ezarri du bere dirutzaren zati bat. Filantropia egiten duten beste aberats batzuekin elkartuta, ekologia eta ingurumenaren aldeko lider askoren lana baldintzatzen du Schmidheinyk.

Belgikako beste familia baten artean mundu osoko fibrozementuaren laurdena kontrolatzen zuten. Aipatu SAIAC kartelaren bitartez lortzen zuten asbestoaren arriskuei buruzko informazioak zentsuratzea eta aspal-ditik demostratuta zeuden ebidentziak agintari politikoei zalantzan jartzea. Horrela baizik ezin da ulertu zenbat berandutu den amiantoaren legez kanpo uztea.

Lobbygintza harago, fibrozementu ekoizleen kontrako auziak hasi direnean –Italian Casale herrikoek eragindakoa historikoa izan da, ez ordea bakarra– abokatuak eta fiskaltza bera espiatzeraino iritsi dira.

Eternit Avinara... Schmidheiny

Amiantoaren kalte gaitzoei buruzko lehen agiri ofiziala 1889an plazaratu zen, Ingalaterran. Baina Europa osoan 2005a arte ez zen erabat legez kanpo geratu.

1900an H. Montague medikuak demostratu zuen lehenbizikoz asbestosia patologia bat zela. 1918. urtean AEBetako New Yorker Prudencial aseguru etxeak ez zituen onartzen amiantoarekin ari ziren langileak bizi aseguru egitekotan. Ez zen aski izan. 1960an C. Wagnerrak azaldu zuen amiantoaren eta birrikako mesoteliomaren arteko lotura. Alferrik. Ez neurririk hartu zen eta ez herritarrei jakinarazi.



Eternit usinan lan bortxatua egitera. Alemanian naziek usatu zuten esklabu lanaz baliatu ziren Schmidheiny-tarrak.

Gauza bera apartheid sistema ezarri zuen Hego Afrikako erregimenarekin. Hango lekukoak elkarriketatu ditu Rosellik, amiantoarekin Everiten lan egin zuten errukarriak. “Beldurgarria zen, hautsa zegoen alde guztietan baina inork ez zigun esan hura hilgarria zenik. Norbait gaixotzen zenean, bere herrira bidaltzen zuten, eta inork ez zuen jakiten zergatik hiltzen ziren”. Anastasio Somozaren Nikaraguan berdin, han Nicalit sortu zuten.

Stephan Schmidheinyk 1990ko hamarkadan laga zituen amiantoarekiko negozioak. Hain zuzen Europan debekua erabakitzen ari zen garaietan. Eta sortu zen Stephan Schmidheiny berria... garapen iraunkorra babesten duen filantropoa. 1994an Avina fundazioa sortu zuen eta 2003an Viva Trust. Prefosta, negozioak utzi gabe: Nueva Group holdingaren bidez garapen iraunkorrarekin dirua irabazten saiatzen da.

Avina eta Viva Trustekin Schmidheinyk subentzionatzen ditu garapen iraunkorra esaten zaion eremu txit zabal eta anbiguoko ekintzak. Tartean, lortu du fitxatzea ekologia munduan izen bat eduki duten jendeak, Paco Puchek aipatzen ditu.

Laster Stephan Schmidheinyk bere buruari ematen dion enpresaburu ameslari eta filantropo irudia aurrez aurre aurkituko da amiantoak eragindako mesotelioma eta kantzerrek kaltetutako milaka biktimek ezarri dizkieten epaiketekin. Bitartean, amiantoak bizirik dirau. ■

1973an Osasunaren Mundu Erakundeak onartu zuen amiantoaren eta birrikako kantzerraren arteko lotura... eta hemen langileek lasai ederrean segitzen zuten amiantoaren egiten, zerraten, ipintzen eta arnasten.

Europako debekuarekin finit izan balitz asbestoarena, orain arte erabilitakoaren ondorioak geldituko lirarteke, une oro azaltzen ari diren mesotelioma eta kantzer berriak. Baina kontua da munduko gainerako herrialde gehienetan legezko izaten segitzen duela, askotan betiko izen zaharrekin, Eternit bera tartean.

Errusia, Txina, Brasil, Kazajstan, Kanada eta Zimbabwe omen dira meategietatik amianto gehien erauzten dutenak. Txina, Errusia, India, Brasil, Kazajstan y Tailandia dira


kontsumitzaile nagusiak. Denetan segiko dute ugaritzen mesoteliomak eta asbestosiak, baina propinarik ikaragarriena gorde zaie amianto berreskuratzen duten lantegietakoei: munduko itsasontzi militar nahiz zibil erraldoien errailetatik asbestoa eskuz inolako babesik gabe atera behar duten pariak dira.

Ia mende batez produktu hori hein handi batean Schmidheiny sendiak kontrolatu zuen, jarduera hainbat enpresa eta holdingetan banatuta: Eternit, Everite, Amanco. Ez dute kontzientzi arazo handirik eduki edozein sistema politikorekin elkarlanean jarduteko. Maria Rosellik elkarriketatu du, esate baterako, Letoniako emakume bat 1942an 19 urterekin Alemaniara ekarri zutena,



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Iñaki Martínez de Luna

Euskara/familia bikotearen dibortzioa

Familia/euskara bikotea banatzear dago. Hainbat urtetan euskara eta familia eskutik helduta ibili badira ere, denbora luzea elkarrekin emandako bikoteen arrisku bera dute, gaur egun: harremana gastatu zaie eta familiak ez du garai batean zuen euskararekiko lilurarik.

Euskara putzu beltzean zegoen garaietan, seme-alaben heziketarako aukera euskaldun bat bultzatzea ausartu ziren familiak. Ikastolen sortzaileak eta ikastolen eskura den-dena jarri zutenak izan ziren familiak: denbora, lana, dirua... Euskararekiko maitasunak itsututa, jokoa zuten gauzarik preziatuena ere utzi zuten ikastolen esku, seme-alaben heziketa alegia.

Urteak joan urteak etorri eta euskarazko hezkuntzaren ardura erakunde publikoen eskutara igaro zen eta, aldi berean, familiak eremu hori abandonatu zuen. Familiak eta euskarak bizkarra eman zioten elkarri. Leku guztietan ez, ordea. Salbuespena da euskarak hezkuntza publikoan lekuri ez duen eremua, Nafarroako zenbait eskualde kasu. Halakoetan familiak euskarazko hezkuntza aldarrikatzen eta bultzatzen jarraitzen du, oraindik ere. EAEn, aldiz, euskararen ardura erakunde publikoen eta talde euskaltzaleen eskutan utzi du familiak, euskarazko hezkuntza barne.

Hain dago familia euskararen kezkatik urrun, non hizkuntza politikek eta programa ofizialek xede-taldetzat hartu behar izan baitute familia bera. Ez da kasualitatea Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak eta EAEko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, biek ala biek, familiaren bidezko euskararen transmisiora eta erabilerara bideratzen duten zenbait plan eta programa antolatu izana. Egoera paradoxikoa da, guztiz: garai bateko euskararen mugimenduko aitzindaria zen familia,



JOSU TXABARRI

hizkuntza politiken objektu pasibo bihurtu zaigu gaur egun.

Euskarak, ordea, badu oraindik familiaren premia handia, eta hirukoitza. Lehenengo beharrizana, jakina, hizkuntzaren transmisioa da, batez ere euskaldun batek eta erdaldun batek edota bi euskaldun berrik osatutako bikoteen kasuetan.

Bigarren premia, seme-alabei hizkuntzarekiko afektua –guraso erdaldunek ere– eta portaera-ereduak –guraso euskaldunek, gehienbat– helaraztea da, txikitako erreferenterik argiena gurasoena da-eta. Guraso euskaldunei dago-kiena, zehatzago esanda, eredu egokia izatea da: euskaldunekin –ume, gazte zein helduak izan– beti euskaraz jardutea. Estatistikak, aldiz, oso bestelakoak dira: seme-alabekin baino askoz urriagoa da senar-emazteen arteko era-

bilera eta hori erreferente ezin okerragoa da ondorengoentzat.



Familiak duen hirugarren zeregina da euskararen agente aktiboa izaten jarraitzea. Garai batean ikastolak bultzatzea familiaren ardura izan zen bezala, gaur egun ere badu zeregin garbia: euskararen erabilerarako baldintza egokiak sortzea, gizarte eremu guztietan. Eginkizun hori guztiona izanik familiarena ere bada, bestela euskararen transmisioa bultzatzeko garai batean egindako ahalegina hutsaren hurrengoa litzatekeelako.

Familiak, ordea, ez daki zeinen zeregin garrantzitsua duen oraindik. Horregatik, familiak –beste gizarte sektore askok bezala– heziketa soziolinguistikorekin premia du. Ikaskuntza hori burutu eta gero eta duen erantzukizunaz jabetuta, familiak bere egingo ditu arestian aipatutako hiru funtzioak. Horrela egin ezean familiaren eta euskararen arteko dibortzioak ez du atzera bueltarik izango eta kaltetuenak, dibortzio askotan bezala, ondorengoak lirake. ■

Euskarak badu oraindik familiaren premia handia, eta hirukoitza. Lehenengo beharrizana, jakina, hizkuntzaren transmisioa da, batez ere euskaldun batek eta erdaldun batek edota bi euskaldun berrik osatutako bikoteen kasuetan

ASTE HONETAKO

zozketa



Urbano Jatetxea

Afaria 2 lagunentzat

Abuztuaren 31, 17
Donostia GIPUZKOA

www.restauranteurbano.com

1




Zientziaren kutxagunea

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.miramón.org

2



Moroak gara behelaino artean?

Joseba Sarrionandia

2 liburu opari

Pamiela Argitaletxea
Agustindarren industrialdea,
Soltxate 6 kalea
Iruñea NAFARROA

www.pamiela.com

3




Zain XXI. mendeko piratak

3 harpidedunentzat
CD bana

www.baga-biga.com

4



Nairobitarra

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2260. Argia)

ONDARRE

• Joxemari Muxika Arrieta (Arrasate)

TARPOON

• Joseba Berriotxo Albedi (Zornotza)
• Bittor Kortabitarte Diego (Bilbo)

PAMIELA Moroak gara behelaino artean?

• Victoria Txurruka Azpiazu (Ondarroa)
• Joxemi Saizar Arostegi (Tolosa)

AQUARIUM

• Mikel Lizarreta Jaka (Gartzain)
• Karmelo Busturia Jimeno (Donostia)
• Alfontso Vila Garzia (Santurtzi)
• Inaxio Garro Iturrospe (Arrasate)

ILLIMANI

• Martin Rezola Clemente (Gasteiz)
• Auro Ansorregi Altzibar (Mutriku)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

EHUN URTE IRUDITAN

Euskal gizartearen memoria grafikoan barrena bidaia aparta

Azken liburua


otsailaren 4an

zure kioskoan



Nazien okupazioa Ipar Euskal Herrian, frankismoaren makineria zapaltzailea hegoaldean, emigratzea, ikastolen hastapenak, folklorea norberaren nortasunaren babesleku bezala, lehenengo kooperatibak, ETaren sorrera eta Burgosko epaiketa. Denbora ilunetatik, kultur eta politikaren irakinaldira.

GARArekin + 11,95 € soilik



Aurreko liburuak
lortzerik izan ez bazenuen,
<http://denda.gara.net> helbidean
edota, astelehenetik ostiralera,
9:00etatik 15:00etara,
943 316 999 telefonora
deituz eskura ditzakezu.

**Bildumaren artxibadorea
lor dezakezu 1,50 €
bakarrik ordainduta**

**Erreserba
ezazu kioskoan**

